

Natura, Gasa eta Gerra:

Cabo Delgado (Mozambique) kasu-azterketa gisa.

Egilea: Yolanda Trillos Perez de Arrilucea

Tutorea: Jokin Alberdi Bidaguren

Master Amaierako Lana (MAL)

Garapena eta Nazioarteko Lankidetzeta Masterra

2024ko ekaina

2023/2024 kurtsoa

HEGOA Institutua- Euskal Herriko Unibertsitatea

HEGOA-EHU

HITZAURREA

Cabo Delgado gerra eta gas-natural likidotuaren (GNL) erauzketa-proiektuak barne hartzen dituen Mozambikeko probintzia da. Bai enpresa transnazional ezberdinak hain aberatsa den bertako kostaldean finkatzeak, bai horren ondorioz emandako gerraren ezta, bertako arrantzale eta nekazaritza komunitateak ez ezik, natura eta natura eta gizakien artean ematen diren harreman ezberdinak ere kaltetu dituzte. Emandako matxinatuen-erasoen ondorioz, bertan kokatzen diren GNL proiektu gehienek euren jarduerak etetea erabaki dute, bakea berrezarrita egon arte. Horretarako, mendebaldeko herrialdeek, beraien sistema metatzaile-kapitalista funtzionatzen jarraitzeko behar dituzten baliabide-naturalak babestea helburu nagusia izanik, finantzaketa-militar handia burutu dute Mozambiken, opakutasun maila handiko harremanak emanik erauzketa-enpresen eta indar-armatuen artean. Lan honek, ekologia politikotik zein ingurumen-etika ezberdinetatik abiatuta, ingurumenaren eta naturaren ongizaterik gabe benetako bakea eta garapena ematea posible ez dela defendatzen du, eta natura zein gizakiaren eta naturaren arteko harremana ikerketa-subjektutzat hartuz, helburu nagusi bat du: bai Cabo Delgadoko gerrak zein erauzketa proiektuek dagoeneko eragin dituzten kalteak azaleratzea eta etorkizun batean okerrera jo dezaketen ondorioen inguruan ohartarazi.

Hitz Gakoak: Jasangarritasuna, gerra, naturaren-eskubideak, gastu-militarra, estraktibismoa, ekologia-politikoak, biodibertsitatea, ekosistema.

ABSTRACT

Cabo Delgado is a province of Mozambique in which liquefied natural gas (LNG) extraction projects and a war are taking place. Both the settlement of different transnational companies on the enriching local coast, and the outbreak of war as a result, have damaged not only the local fishing and agricultural communities, but also nature and the different relationships between nature and humans. Most of the LNG projects located there have been suspended as a result of the insurgency attacks until peace is restored. To this end, Western countries, whose main objective is to protect the natural resources necessary for their accumulating capitalist system to continue functioning, have carried out a significant military investment in Mozambique, establishing highly opaque relations between extractive companies and the

armed forces. This work, both from political ecology and from different environmental ethics, defends that it is not possible to give real peace without the environment and the well-being of nature, and its main objective is to make visible the damages that war and the extractive project have already caused to them and raise awareness about the consequences that can get worse in the future.

Key Words: Sustainability, war, rights of nature, military spending, extractivism, political ecology, biodiversity, ecosystem

AURKIBIDEA

1. SARRERA	7-13.orr
1.1. Gaiaren Planteamendua	7-8.orr
1.2. Helburuak	8-9.orr
1.2.1. Helburu nagusia	
1.2.2. Helburu zehatzak	
1.3. Ikerketa Galderak	9.orr
1.4. Hipotesiak	10.orr
1.5. Ikerketaren garrantzia/justifikazioa	10-12.orr
1.6. Plan orokorra eta ikergaiaren edukiera	12-13.orr
2. METODOLOGIA	14-17.orr
3. MARKU TEORIKOA	18-27.orr
• 3.1. Ekologia politikoa: Ekologia politizatzearen garrantzia	18-20.orr
• 3.2. Ingurumen-etika nagusien aipamen laburra: mendabaldeko ingurumen-etika <i>mainstream</i> -ak eta Afrikako ingurumen etikak	21-27.orr
○ 3.2.1. <i>Mendabaldeko ingurumen-etika mainstream-ak: antropozentrismoa, biozentrismoa, ekozentrismoa (eta ekofeminismoa).</i>	
○ 3.2.2. <i>Afrikako ingurumen-etika nagusiak: “Ingurumen-harreman etika”, “eko-bio-komunitarismoa” eta “eko-humanismoa”.</i>	
4. ANALISIA	28-65.orr
4.1. I. ATALA: Gerra eta erauzketa-jardueren ondorio ambiental eta ekologikoen gaineko hurbilketa teorikoa	28-37.orr
4.1.1. <i>Kalte ekologikoak erauzketa-prozesuetan: nazioarteko harreman ekonomikoak eta gas-erauzketen mugen higadura</i>	28-34.orr
4.1.2. <i>Gerrak eragindako kalte ekologiko eta ambientalen azterketa teoriko orokorra</i>	34-37.orr
4.2. II. ATALA: Kasu Azterketa: Cabo Delgado (Mozambique): Gerra, gasa eta natura batzen dituen probintzia	38-65.orr
4.2.1. <i>Mozambiqueko historia garaikidea eta gaur egungo egoera</i>	38-41.orr

4.2.2.	<i>Cabo Delgadoko testuingurua: Suntsituta dagoen probintzia</i>	41-49.orr
4.2.3.	<i>Gas Natural Likidotuaren (GNL) erauzketa Cabo Delgadon: ingurumen-kalteak eta kalte-ekologikoak</i>	49-57.orr
4.2.3.1.	<i>Aurreikuspenak bete dira? Cabo Delgadoko kostaldearen egoera behin proiektua hasita</i>	53-54.orr
4.2.3.2.	<i>Etorkizunera begira: proiektu guztiak berriz funtzionamenduan jartzean eman daitezkeen ondorio ambientalak eta ekologikoak</i>	55-57.orr
4.2.4.	<i>Gerra Cabo Delgadon: ingurumen-kalteak eta kalte-ekologikoak</i>	57-65.orr
4.2.4.1.	<i>Iraganetik ikasiz: Gorongosako Parkearen kasua</i>	57-58.orr
4.2.4.2.	<i>Gaur egungo Cabo Delgadoko gerra zibila, militarizazioa eta ingurumen ondorioak zein ekologikoak</i>	58-62.orr
4.2.5.	<i>Enpresa estraktibisten eta indar armatuen arteko lotura</i>	62-65.orr
5.	ONDORIOAK	65-69.orr
6.	BIBLIOGRAFIA	70-81.orr
7.	ERANSKINAK	82-88.orr

“Hamarkada batzuk barru, gaur egun Giza-Eskubideen, demokraziaren eta bakearen artean ikusten dugun lotura bezain begi-bistakoa izango da ingurumenaren, natura-baliabideen eta gatazken arteko harremana”

(Waangari Maathai, 2004ko Bakearen Nobel Sariduna)

LABURPENAK

- BPG: Barne Produktu Gordina
- CEDAW (1979): Emakumeen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioak
- CO2: Karbono Dioxidoa
- EB: Europar Batasuna
- FLNG: Coral South floating LNG
- FRELIMO: Mozambiqueko Askatasunerako Frontea
- ICRC: Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordea
- GGI: Giza Garapen Indizea
- GKE: Gobernu Kanpoko Erakundea
- GNL: Gas Natural Likidotua
- IISD: Garapen Jasangarrirako Nazioarteko Institutua
- MB: Munduko Bankua
- RENAMO: Mozambiqueko Erresistentzia Nazionala
- RG: Gomendio Orokorrak
- SADC: Afrika Australeko Garapenerako Komunitateak
- SAMIM: SADC-en misio militarra Mozambiken

1. SARRERA

Naturak gu geu izaten edo gure nortasuna mantentzen laguntzeaz gain, baldintza aldaketan zein bizitza arriskupean geratzen den egoeren aurrean ugartzen gaitu; bizitzak bizipozez eta magiaz betetzen ditu.

(Sobonfu Somé)

a) Gaiaren planteamendua

Cabo Delgado gerra zein enpresa transnazionalen aurrera eramandako erauzketa-proiektuak elkartzen dituen probintzia da. Bi aldagai hauek eragin handia izan dute bertako biztanleriarengan. Euren bizilekuetatik lekualdatu behar izan dira eta horrek euren bizimoduan eta garapenean eragin zuzena izan du (Gernika Gogoratu, 2022).

Erauzketa-mugen higadura gaur egun indartzen ari den fenomeno izanik, enpresa transnazionalen jarduerak hegoalde globaleko herrialdeetara iritsi dira (Walter, 2017). Horrek eragin zuzena izan du bertako komunitate lokaletan, Mozambikeko Cabo Delgado probintzian kasu, non, esan bezala, komunitateek euren lurak galdu dituzten euren biziraupenerako beharrezkoak diren jarduera-ekonomikoak burutzeko aukera kenduz. Gizon eta emakume arrantzaleek itsasorako sarbidea galdu dute. Arrantzaleek ez ezik, komunitate nekazariak ere euren *machambak* (lantzen dituzten lur eremuak) utzi behar izan dituzte. Honek, beste arrazoiekin batera, bertako matxinatu talde baten erradikalizazioa eragin du, milaka hildako eta barne-desplazamenduak eragin dituen talde honen eta herrialdeko indar-armatuen arteko gerra odoltsu bati hasiera emanik.

Bai gerrak bai gas esportaziora bideratutako proiektuen hasierak, biztanleriarengan ez ezik, itsasoko, kostaldeko zein lurreko ekosistemetan ere degradazioa eta aldaketa suposatuta duela antzeman daiteke, eta horrek, bai naturaren ordenan bai gizartearen antolaketa eremuan eragin zuzena izan du. Hori dela medio, Cabo Delgado okerrera jo dezakeen arazo ekosozial edota gatazka sozioambiental handi baten aurrean dagoela esan daiteke.

Hiru adar dituen gatazka baten aurrean aurkitzen gara, edota beste modu batean esanda, gas-enpresak, herritarrak eta talde armatuak biltzen eta saretzen dituen gatazka hirukoitz baten aurrean (EjAtlas, 2023). Erauzketa-enpresa transnazionalen menpe dagoen herrialde

baten marku-politikoak, non horrelako aktore pribatuek eragindako kalte sozialak zein ekologikoak esanguratsuak diren, hamarkadak iraun duen pobrezia eta isolamenduko egoera gehituz gero, komunitateen eta gobernuaren arteko gatazka baten hasiera ekar dezake. Gatazka bera gerra batean amaitu daiteke non Giza-Eskubideen zein naturaren-eskubideen urraketa eta bortxaketa ematen den (Álvarez, 2018). Hauxe izan da, hain zuzen ere, Cabo Delgadoko kasua.

Cabo Delgado probintzian, subjektuak eta aldagaiak anitzak izanik, kalteak badira ere bai. Kalte indibidualez edo kolektiboez gain, ingurumen-kalteak zein ekologikoak eman dira. Lehenengo biek, pertsona edota talde baten ondareari erreparatzen dioten bitartean, ingurumen-kalteak eta kalte-ekologikoak deitutako horiek beste puntu batzuk barne hartzen dituzte. Ingurumen-kalteek baliabide naturalen gehiegizko erabilerak zein kutsadurak kolektibo edota komunitate jakin baten gainean eragin ditzaketen ondorioak biltzen dituzte, esaterako Cabo Delgadoko proiektu estraktibistek eragindako kutsadurak bertako komunitate arrantzaleen eta nekazal-komunitateen osasunean izan duen eragina. Kalte-ekologikoek aldiz, naturak berak (eta ez pertsonak) jasandako kalteei erreparatzen diete; hau da, ez dituzte pertsonen, komunitateen edota jabetzen gaineko ondorioak kontuan hartzen; soilik naturak, subjektu bezala, jasandako horiek (Beristain, 2010), hala nola Cabo Delgadoko kasua, non gerrak zeharka itsasoaren ekosistemaren eraldaketa eragin duen.

Cabo Delgadon ematen ari diren gertakizunen inguruan, analisi zein azterketa ezberdinak eraman dira aurrera. Horietako dexentek lehen aipatutako kalte indibidualetan eta kolektiboetan murgildu dira. Hala ere, beste perspektiba ugariatatik eta beste ikerketa-objektu ezberdinak aintzat hartu ditzaketen ikerketak eraman daitezke aurrera. Ikerketa honetan ikuspegi zabalago batetik abiatuta, natura eta natura eta komunitate arrantzaleen arteko harremanak izango dira subjektu nagusiak.

b) Helburuak

Testuinguru hau kontuan hartuta, hurrengo hauek dira ikerketa honen bitartez lortu nahi diren helburu ezberdinak. Alde batetik, ikerketa honen helburu nagusia planteatu da eta ondoren bi azpi-helburu edota helburu zehatzak:

- **Helburu nagusia**

- Cabo Delgado probintzian aurrera eramaten ari diren erauzketa-proiektuek eta gerrak naturarekiko zein komunitatearen eta naturaren arteko harremanetan dituzten eta izan ditzaketen kalteak salatzea eta horren inguruan ohartaraztea.

- **Helburu zehatzak**

- Cabo Delgadon kokatu diren proiektuak bideratzen dituzten enpresa transnazionalen eta Mozambikeko indar armatuen arteko lotura eta harremanak aztertzea.
- Erauzketa mugen higaduraren arrazoiak ezagutzea eta honek izan ditzakeen bultzaren aurkako ondorioak azaleratzea.

c) Ikerketa Galderak

Maxwell-ek (1996) dio ikerketa galderak aktore sozialek euren ekintza edo bizipenei hala nola gertaera eta egoerei ematen dieten esanahia ulertzea dutela helburu. Arestian aipatutako helburuetan oinarrituta, hauek dira ikerketa honen bitartez erantzun nahi diren galderak:

- Nolako eragina dute eta izan ditzakete Cabo Delgadon ematen ari diren erauzketa-proiektuek zein gerrak naturan eta komunitate eta naturaren arteko harremanean?
- Zer lotura nabarmendu daiteke Mozambikeko indar armatuen eta erauzketa proiektuak aurrera eramaten ari diren enpresen artean, zein da harreman honen helburu nagusia?
- Zer dela eta ari da ematen erauzketa-mugen higadura eta zer ondorio suposa ditzake hegoalde globaleko herrialdeen ingurumen-etikan?

d) Hipotesiak

Behin helburuak eta ikerketa galderak planteatuta daudela, hauek dira ikerketa honen bitartez onartu edota alboratu nahi diren hipotesiak. Ikerketa galderen eredu jarraituz, hipotesi nagusi bat planteatuko da eta ondoren bigarren mailako bi.

- H1: Erauzketa-proiektuek ez-ezik, gerrak ere, okerrera jo ditzaketen kalte ekologikoak eta ambientalak eragin ditu Cabo Delgado; probintzia kapital-bizitza gatazka testuinguru batean sartuz.
- H2: Enpresa transnazionalen eta Mozambikeko indar-armatuen arteko harremanak estuak dira eta hauen existentziak antropozentristak diren mendebaldeko herrialdeen interes ekonomikoei erantzuten die.
- H3: Kapitalismoak berezko dituen metaketa eta hazkunderako beharrek hegoalde-globalarekiko neokolonialismoan oinarritzen diren harremanak bultzatzen dituzte, bertako ingurumen-etika ezberdinak kaltetuta geratuz.

e) Ikerketaren justifikazioa

Lehenik eta behin, ez da ahaztu behar bakea lortzeko ingurumen-bakea ezinbestekoa dela (Pere, 2021). Bake kritiko post-liberalaren teoria ezberdinek, hain zuzen ere, ingurumenaren ikuspegia barne hartzen dute (Alberdi eta Oianguren, 2023). Ingurumenaren narriadurak gizartearen segurtasun-eza eragin edota areagotu dezake, higadura, basamortutzea edota deforestazioa bezalako gertakizunek ondorio zuzenak baitituzte gizarte eta komunitateen elikaduran, osasunean eta bizilekuetan, besteak beste (Renner, 1997). Arazo ekologikoak Giza Eskubide eta justizia-sozialaren markoaren barnean ulertu daitezke beraz. Giza Eskubideen eta ingurumenaren babesaren artean elkar-mendekotasuneko harreman bat dagoela kontuan hartu behar da. Izan ere, ingurumenaren-eskubideek, eskubide sozialen eta ekonomikoen gaineko eragin zuzena dute, pertsonen segurtasunean zein bizi-kalitatean eragin zuzena baitute (Corte IDH, OC-23/17, 2017; apud; Palacios, 2020). Ezinezkoa da bizitza duin bat izatea ingurumena kaltetua badago, eta horixe bera da ingurumen eta ekologiaren arazoa ikertzeko arrazoi garrantzitsu bat.

Edozein motako erreparazio prozesu bat aurrera eramateko, ezinbestekoa da gertakizunaren inguruko hausnarketa eta analisi sakon bat egitea. Ikerketa honetan bi aldagai dira aztergai: erauzketa-prozesuak eta gerra. Alde batetik, proiektu estraktibistek eragin zuzena dute naturan eta landan bizi diren komunitateetan. Antolaketa edota ordenu guztia aldatzen da, naturaren eta biodibertsitatearen narriadura ematen da, komunitateek euren jarduerak ekonomikoak aurrera eramateko behar dituzten baliabideak galtzen dituzte... Bestalde, oso urriak dira ekintza militarrek (gerraren prestaketatik gatazka-armatua amaitzeaz haratago) krisi ambientalarekiko eta naturaren degradazioarekiko duten erantzukizuna salatzen dituzten ikerketak eta teoriak. Kontuan hartuta gerra berrien izena jaso duten gatazkek dimentsio eta subjektu ugarien gaineko ondorioak suposatzen dituztela, natura eta natura-komunitatea harremanaren inguruan ikertzea garrantzitsua da.

Modu berean, ikerketek errealitatea modu sakonago batean ulertzea ahalbidetzen dute. Natura (eta horren barnean ematen diren harreman eta sare guztiak, gizaki-natura harremana barne) subjektua kontsideratzeak gatazkaren analisia ikuspegi ezberdinetatik ulertzea suposatzen du, eta, esan bezala, bake edota erreparazio prozesuak aurrera eraman ahal izateko, ezinbestekoa da hura kontuan hartzea.

Tradizionalki modu honetan ulertu izan da erreparazioa: *“Giza Eskubideen urraketan, hondamendi teknologikoen edota industria-praktika suntsitzaileen ondorioz kaltetuak suertatu diren pertsonen eskubideak lehengoratzeko eta euren egoera hobetzeko aurrera eraman beharreko neurri multzoari egiten dio erreferentzia, bai eta ondorio kaltegarri horiek errepikatzea eragozten duten lege edo politika erreformak sustatzeko neurri multzoari ere”* (Beristain, 2010: 19).

Definizio honek ez du ingurumena edota natura kontuan hartzen. Hori dela eta, ekologia-politiko eta ingurumen-etika batetik ezinbestekoa da erreparazioaren barnean gizakien eta naturaren arteko harremanak zein natura bera kontuan hartzea (azken hau eskubide-subjektua kontsideratuz), komunitateek ez ezik, praktika suntsitzaileen ondorio kaltegarriak jasaten baitituzte ere bai. Horrez gain, ingurumenaren erreparazioa modu zabalean ulertu behar da, ekosistema horrekiko harreman zuzena duten jendearen eskubideetaz gain, planteamendu ekologikoak ere aintzat hartuz. Kasu honetan, erreparazio integral batetaz hitz egiten egongo ginateke (ibidem).

Idea hau gurera ekarriz, esan bezala, Cabo Delgado probintziaren inguruan aurrera eramán diren ikerketa gehienak, gizarteak eta komunitateek jasandako ondorioetan enfokatu dira gehien bat: desplazamenduak, ondorio ekonomikoak, hilketak, bortxaketak... Gutxi izan dira ondorio ambientalak edota naturak zein natura eta gizakien arteko harremanak jasan dituzten kalteak ikertu dituzten txostenak. Ekologia-politikotik eta etika ambientalista, animalista edota ekozentrismo batetik burutzen diren ikerketa mota hauek garrantzitsuak dira post-gatazka egoera batean, non bake-eraikuntza marko integral baten barnean ingurumenaren babeserako politikak eramán daitezkeen aurrera (Gaynor, 2022; apud, Anthes, 2022). Alderantziz, eremu akademikora mugatuz gero, gatazka-sozioambientalen inguruko ikerlanek, ikuspegi-ambientalista edota justizia-ambientaletik haratago doazen eta *mainstream*-etik at kokatzen diren ekarpen teorikoak azalertzeko eta ezagutarazteko aukera ematen dute.

f) Plan orokorra eta ikerketaren edukiera.

Planteatu diren galderei erantzuna emate aldera, honako ikerketa hau jarraian adierazten den moduan antolatu da. Behin ikerketa gaiaren planteamendua amaiturik, metodologiaren atalari eman zaio hasiera, zeina ezinbestekoa den ikerketaren eredua, iturriak, landa-lana, metodoak... identifikatzerako orduan. Ondoren, ikerketa hau egin bitartean erabili diren ikuspegi teorikoak eta analitikoak azaldu dira; hots, marku teorikoa, zeina bi atal ezberdinek osatzen duten. Alde batetik ekologia-politikoaren deritzon teoriaren ekarpen nagusiak azaldu dira. Bestalde, naturarekiko eta gizakiaren eta naturaren arteko harremanen inguruan dauden ulerkera ezberdinen inguruan sakontzea ezinbestekoa izanik, ingurumen-etika ezberdinen inguruko analisi bat egin da. Ikertu nahi den errealitatea Afrikan kokatzen den herrialde batean gertatzen den heinean, ipar-globaleko akademiatik datozen ingurumen-etika *mainstream*-ez gain, Afrikako autore eta aditu ezberdinek landutako zenbait ikuspegi nagusi aipatu nahi izan dira, horiek fenomeno honetara gerturatzeko erremintak emateaz gain, hauek ikusaraztea aintzatespenerako bide xume bat kontsideratu daitekeelako.

Ikerketa honen analisia bi atal nagusietan banatu da. Alde batetik, testuinguru-orokor bat landu da non erauzketa-proiektuek eta gerran aurrera eramaten diren jarduerak eragiten dituzten kalte ambientalen eta ekologikoen inguruan hausnartzen den, gai hauetan adituak diren horiek planteatutako teoria, adibide eta ulerkera ezberdinez baliatuz. Ondorengo

atalean, behin Mozambikeko historia garaikidea zein Cabo Delgadoko testuinguru orokorra azaldu eta gero, ikerketa-objektu diren bi aldagai hauek ikerketa-kasura aplikatu dira. Hau da, Cabo Delgado probintzian aurrera eramaten ari diren GNL *offshore* erauzketa-proiektuak eta gerra direla eta, bertako natura zein natura-komunitate harremanen gaineko ondorioen azterketa. Bigarren atal honek hain zuzen ere, ikerketa honen ikerketa-galdera nagusiari ematen dio erantzuna. Horrez gain, bai gerra eta militarizazioa bai GNL proiektuak harremantzen dituzten interesak azaleratu dira.

Ikerlana amaitutzat emateko, ondorio nagusi batzuk planteatu dira. Atal honetan, burututako ikerketaren laburpen orokor bat egin eta gero, hasieran planteatu diren helburu, ikerketa-galderei eta hipotesiei erantzuna eman zaie. Ondoren, etorkizunerako ikerketa eremu berriak planteatu dira. Behin hori eginda, ikerketan zehar erabiliak izan diren erreferentzia bibliografikoak zein elkarrizketa burutzeko erabili izan diren eranskinak atxikitu dira.

2. METODOLOGIA

“Urak bakea, oreka, jakinduria eta adiskidetzea irudikatzen ditu, gure bizitzarako lortu nahi dugun egoera baketsua”

(Mendebaldeko Afrikako Griot-a)

Cabo Delgadoko gerrak eta erauzketa-proiektuek naturan zein gizarte eta naturaren arteko harremanetan eragin dituzten kalteak ikertzeko erabilitako metodoa kualitatiboa da, zeinak ezaugarri hauek betetzen dituen (Rajasekar, et al. 2013):

- zenbakaitza, deskribatzailea, arrazoiketa aplikatzen du eta hitzak erabiltzen ditu.
- bere helburu nagusia, esanahia lortzeaz gain, egoera deskribatzea eta sentitzea da.
- ikerketa esploratzailea da.
- gertakari baten nolakotasuna eta/edo zergatia ikertzen du (ibidem).

Ikerketa honetan erabili den diseinua, ikerketa-kasu bakarra izan da. Ikerketa-kasua zer den azaltzen duten hainbat definizio daude. Yin-ek (2009), diseinu mota honetan aditua, kasu-azterketa gizarte-zientzien ikerketa egiteko modu bat dela adierazteaz gain, kasu hauetan erabiltzen dela azaltzen du:

- “Nola/Nolako” eta “zergatik” galderak egiten direnean.
- Ikertzaileak gertaeraren gaineko kontrol gutxi duenean
- Ikerketa bizitza errealeko testuinguruan eman den gaur egungo fenomeno batean oinarritzen denean.

Honen aurrean, Yin-ek (2009) modu honetan definitzen du ikerketa-kasua:

“Kasu-azterketa gaur egungo fenomeno bat sakon eta bere bizi-testuinguruan ikertzen duen ikerketa enpirikoa da, batez ere fenomenoaren eta testuinguruaren arteko mugak argi eta garbi nabarmenak ez direnean (...)”. (Yin, 2009:19)

Jakinda kasu-azterketak gehiegi sinplifika daitezkeela eta irakurleek ondorio orokorrak atera ditzaketela, lan honen xede nagusia ikerketa honetan planteatutako helburuak aztertzea dela

azpimarratu nahi da; hau da, lan honen helburua ez da Cabo Delgado probintzia osatzen duten aldagai eta dimentsio guztiak deskribatzea eta ulertzea.

Diseinu mota hau erabiltzeaz gain, ikerketa honen ikuspuntu-lokala azpimarratu nahi da, honek, hain zuzen ere, lurraldearen garrantzia azpimarratzen baitu ikerketa-marku gisa. Lurraldea, hain zuzen ere, paisaia, ekosistemak eta gizarte-taldeak biltzen dituen gunea litzateke. Era berean, ikuspegi honek, planetako bizitzarako justuak eta jasagarriak diren aukerak eraikitze defendatzen du (Alberdi eta Oianguren, 2023).

Ikerketa guztietan, datuak biltzerako orduan, metodo ezberdinak erabili daitezke. Datuak edota iturriak lehen mailakoak edo bigarren mailakoak izan daitezke. Lehen mailakoak modu ezberdinen bitartez lortu daitezke, hala nola, elkarrizketen eta eztabaida-taldeen edota galdeketa eta inkesten bitartez. Bestalde, bigarren mailako iturriak dagoeneko beste ikertzaile batek jaso eta aurkeztu dituen datuak lirateke (Hox et al, 2005).

Ikerketa hau aurrera eramateko, bigarren mailako iturriak erabili dira gehien bat; hurrengo hauek horietako batzuk izanik: “*Amnistía Internacional*”, “*Justiça Ambiental*” edota “*Friends of the Earth*” bezalako Gobernu Kanpoko Erakunde (GKE) ezberdinek argitaratutako txostenak; bakerako erakunde ezberdinek aurrera eramandako ikerketak zein hitzaldiak, hala nola “*WILPF*”, “*Centre Delás*” edota “*Gernika Gogoratu*”; “*Web of Science*”, “*Scopus*” eta “*Dialnet*” bezalako datu-baseek eskainitako ipar globaleko akademiatik zein Afrikako epistemologietatik datozen ingurumenaren eta naturaren inguruko ekarpen teorikoak; Mozambikeko gobernuaren dokumentazio ofiziala; gas-enpresa ezberdinek burututako proiektu eta inpaktu txostenak... Horrez gain, ikerketa honetan Cabo Delgadoko hainbat hedabideek eskainitako informazioa erabili da: “*Zetamar News*” aldizkariaren artikuluak eta txostenak edota “*Cabo Ligado*” izeneko gatazka-behatokiak aurrera eramandako txostenak eta berriak, besteak beste. Idatzizko baliabideak ez ezik, zenbait dokumentalek eskainitako informazioa erabili da ere. Gainera, hedabide berriei esker, posible izan da oso interesgarriak diren informazio iturrietara iristea. Esanguratsuenak honako hauek izan dira: “*Cabo Ligado*” behatokiak burutzen duen podcast-a (“*Plural Media*”) eta *watsappeko*-hedapen kanala (“*Plural Media-Portugués*”) hala nola “*Voz de Cabo Delgado*” izeneko irratia.

Ikerketa askotan gertatu daitekeen moduan, ikerketa hau aurrera eraman ahal izateko bigarren mailako informazioa eskuratzea ez da erraza izan. Gaur egun ematen ari den gertakizuna

dela kontuan hartuta, zaila izan da Cabo Delgadoren inguruan diharduten datuak aurkitzea, gehiegi ikertu ez den lurraldea izateaz gain, ikerketa honetan planteatzen diren ikerketa-subjektuak (natura eta natura-gizaki harremanak) eta objektuen (gerra eta gas-erauzketa proiektuak) inguruan aritzen diren ikerketak ez baitira ugariak gizarte zientzien arloan. Honen harira, Teresa Cunha soziologo feministaren aburuz, zeina Cabo Delgado probintzian aditua den, bi arrazoi nagusi aipatzen ditu ingurumen-kalteak, erauzketa jarduerak eta gatazka saretzen dituzten ikerketa sistematikoen gabeziaren arrazoiak azaltzerako orduan (Cunha, 2024; apud. WILPF España, 2024):

- Cabo Delgado sekuritizazio eta militarizazio maila altuko probintzia da gaur egun. Hori dela eta, iturri garrantzitsuak izan daitezkeen pertsonen zailtasun handiak dituzte probintzia horretatik ateratzeko eta informazioa zabaltzeko.
- Gobernuak herriaren subiranotasunerako arriskutsua kontsideratzen duen informazio oro zentsuratzen du (ibidem).

Bestalde, indar armatuek zein industria militarrek krisi klimatikoaren gainean duten eragina (bai bake garaian, bai gerra egoeran) neurtzea eta aztertzea zaila da, informazioa oso urria izateaz gain, gehienetan fidagarria ez baita. Gehien bat, berotegi-efektuko gasen isurketen inguruko informazioa landu izan da, baina datuak eskasak dira oraindik (Bohigas eta De Fortuny, 2022). Informazio eskasiaren ondorioz, ez daude Mozambiqueko indar-armatuek eragiten dituzten isurien eta kalte ekologikoen inguruko datu ofizial zehatzik. Honako hau kontuan hartuta, ikerketa honen bitartez, indar-armatuen zein enpresa militarren ekintzen inguruan dagoen gardentasun falta salatu nahi da eta horrekin amaitzea eskatzen da, krisi klimatikoari aurre egiteko ezinbestekoa baita jarduera mota honen eragina zuzenak zein zeharkakoak kontuan hartzea eta horien inguruan informazio ofiziala eskaintzea.

Bigarren mailako iturriez gain, egoera ondo ezagutzen dutenen informazioa eskuratu nahi izan da. Horretarako, Jokin Alberdik (zeina ikerketa lan honen tutorea izan den) gai honetan adituak direnen eskainitako zenbait kontaktu erabili dira. Horrez gain, ahalik eta informazio gehien lortze aldera, lehenengo eranskinean atxikituta dagoen dokumentua hainbat erakundeetara bidalia izan zen, hala nola “*Cabo Ligado*” behatokira, “*La Voz de Cabo Delgado*” irratira, “*Justiça Ambiental*” GKE-era edota “*Madrileko Unibertsitate Complutense-ko Afrika inguruko Dokumentazio eta Informazio zentrorra*” (CIDAF-UCM).

Bertan, gaiaren planteamendu orokorra aurkezteaz gain, elkarrizketa bat adosteko eskakizuna egin zen. Tamalez, erakunde hauen partetik ez zen erantzunik jaso. Elkarrizketa egiteko prestutasun osoa adierazi zuen pertsona bakarra Abudo Gafuro Manana izan zen, Mozambikeko “*Associação Kuendeleya*” izeneko GKE-aren zuzendaria, aktibista soziala eta Giza Eskubideen defendatzailea.

Hizkuntza eragozpen handia izanik, bion artean elkarrizketa konbentzionala ez egitea erabaki genuen, eta horren ordez, nik planteatutako galderak portugaleraz bidaltzea eta berak modu idatzian erantzutea adostu genuen. Izan ere, portugaleraz entzutea eta hura ulertzea ez da irakurtzea bezain erraza. Galderak planteatu baino lehen, bigarren eranskinean atxikitu den gaiaren aurkezpen orokorra azaldu zitzaion. Ondoren, elkarrizketatu gisa zituen eskubideak azaldu zitzaizkion eta bere izena erabili ahal izateko baimena eskatu zitzaion (3. eranskina). Azkenik, interesgarriak izan zitekeen galderak planteatu nizkion eta ondoren modu sakonean erantzun zituen (4. eranskina). Mozambikeko hizkuntza ofiziala portugaleraz izanik, eta Gafuro jaunak horrela eskatuta, dokumentu guztiak portugaleraz bidali zitzaizkion.

3. MARKU TEORIKOA

“Elefante handitzat hartzen duzu zeure burua, baina sabana zu baino askoz handiagoa da”.

(Ahozko tradizio mandingoa)

Bizitzaren eta errealitatearen konplexutasuna ulertzeko eta interpretatzeko orduan garrantzitsua da marku, ikuspegi eta analisi ezberdinen arteko sare bat eraikitzea. Hori dela eta, teoria eta ekarpen ezberdinak aipatu dira hemen: ekologia politikoa alde batetik eta bestalde ingurumenaren-etikatik eratorritako hainbat ekarpen teoriko, bai mendebaldekoak zein Afrikakoak. Gatazka-sozioanbientaletaz hitz egiteko orduan oso ohikoa izanen da “ingurumen justizia” edota ikuspegi antropozentrista bezalako marko edota ikuspegi analitikoak erabiltzea. Haatik, badaude oso interesgarriak diren beste hainbat ikuspegi edota etika.

3.1. Ekologia politikoa: Ekologia politizatzearen garrantzia.

Krisi ekologikoko garai edota testuinguru baten aurrean, Ekologia Politikoa deritzon praktika zein teoria gizarte industrialaren alternatiba gisa agertzen den pentsamendu edota ideologia kritikoa, globala eta eraldatzailea da (Marcellesi, 2012). Definizio ugari jaso izan ditu, horietako bat hurrengo hau izanik:

“Ekologia politikoa faktore politiko, ekonomiko eta sozialen zein ingurumen-arazo eta-eraldaketen arteko harremanen azterketa da. Gizarte-izaeraren eta gizarte-harremanen inguruko galderak egiten dira era kritikoan, bereziki baliabide naturalen eskuragarritasunean eragin zuzena duten botere-harremanei buruzkoak, kostuen eta irabazien banaketan ematen diren bidegabekeriak eta disparekotasunak azaleratzeko helburuarekin” (Robbins, 2012; apud. Muleta, 2013)

Andrew Dobson-ek (1997), ekologia-politikoaren aitzindaria, ikuspegi hau defintzerako orduan, hurrengo hiru zutabe edo ideia nagusiez baliatu zen: ekologia politikoa gizartea modu jakin batean deskribitzen duen ideologia da, gizarte-eredu jakin baten alde egiten duena eta azkenik erreformismo erradikala deritzon ekintza-politikorako programa bat duena, zeina

epe laburrera ekintza erreformistak garatzea eta epe luzera aldiz helburu erradikalak ezartzea defendatzen duen (Marcellesi, 2008; apud. Martín eta Gongar, 2011).

Teoria edota ikuspegi honek dioenez, gaur egungo ekoizpen ereduak oreka ekologikoak hausteaz gain, lurraren eta bizitzaren suntsipena eragiten ari du (Gorz, 1982; apud, Marcellesi, 2012). Tresna analitiko eta teorikoa bezala ulertuz gero, ekologia-politikoaren helburua, modu laburrean esanda, gatazka sozio-ambiental ezberdinen azterketa eta analisisa litzateke (Martínez Alier, 2015). Horrez gain, korrante teoriko honek gizakien eta ingurumenaren artean ematen den elkarreagina agerian uzten du eta hori dela eta, gatazka kudeaketa prozesuetan geroz eta pisu handiagoa eskuratzen ari den teoria da (Ume, 2021).

Ikerketa eredu bezala ulertuz gero, esan bezala, ekologia politikoak gatazka-sozioambientalak zein hauen garapena aztertzea du helburu. Aldi berean, ekonomia eta sistema politikoa baldintzatzen dituzten botere harremanak azaleratzen ditu. Honen sustraiak 1980.hamarkadako Gizaki Geografian eta Gizarte Antropologian aurkitu daitezke (Martínez Alier, 2015). Gaur egun aldiz, iturri anitzetaz elikatzen den teoria da, ezagutza ezberdinetako metodoak eta erremintak erabiliz: geografia, antropologia, ekonomia politikoa, gizarte-zientziak, historia, ingurumen-zientziak... (Muleta, 2017). Hasiera batean, ekologia diziplina zientifikoa zen soilik, baina pentsamendu politikoa bezala kontsideratzeak gizakien jardueren eta ekintzen zentzuaren inguruan ideia eta hausnarketa berriak azaleratu zituen: nolako eragina dute gure ekintzek eta gizarte-antolaketak ingurumenean? zer nolako eragina dute gure lan-jarduerak, gure bizimoduak eta gure kontsumo-ereduak ingurumenean eta naturan? (Marcellesi, 2012). Ekologia

Raymond L. Bryant eta Sinéad Bailey (1997), biak ekologia politikoaren fundatzaileak, gaur egun indar handia duten hiru premisa edo puntu garatu zituzten:

- Ingurumenaren gaineko aldaketek ez diote era homogeneoan eragiten gizarteari: desberdintasun politikoak, sozialak eta ekonomikoak, kostuen eta onuren banaketa disparekoen erantzule dira. Hau da, krisi-klimatikoko edota ekosistemen aldaketa egoera baten aurrean, ipar-globaleko herrialdeek edota gizarte jakin bateko klase aberatsenek, hegoalde-globaleko edota klase-xumeek jasango dutenarekin alderatuta, ez dituzte hainbeste ondorio kaltegarri biziko.

- Ingurumenak jasandako edozein aldaketak eragin zuzena du politikaren eta ekonomiaren *status-quo*-an. Eredu kapitalistak defendatzen duenaren aurka, ekonomia gizartearen barnean dagoen gauza da, eta natura guzti hori barne hartzen duena litzateke. Gu gizarte moduan eta gure ekonomia eredu natura horren barnean egonik, eta ez horretatik aparte edota horren gainean, ingurumen aldaketen eraginak eta ondorioak sektore horietara ere zabalduko dira.
- Kostuak eta onurak modu disparekoan banatzeak eta komunitate ezberdinen arteko disparekotasun sozialen indartzeak edo ahultzeak ondorio politikoak eragiten dituzte.

Aldi berean, ekologia politikoa ekoizpen sistema berezkoa duen hazkunde mugagabearen aurka egoteaz gain, ekoizpenaren eta kontsumoaren hazkundera garapena lortzeko bidea dela defendatzen duen tesia ukatzen du guztiz. Horrez gain, Barne Produktu Gordina (BPG) gizarte edota herrialde baten ongizate maila neurtzeko tresna kontsideratzearen baliogabetasuna adierazten du, eta horren aurrean gainontzeko aberastasun ekologikoak eta sozialak kontuan hartzen dituen erreminta berriak sortzea defendatzen du (Marcellesi, 2012).

Beste teoria medioambientalisten kontrara, ekologismo-politikoaren aburuz, bizitza jasangarri eta duin bat lortzeko gizaki-naturaren arteko harremanaren eta gure eredu politiko, sozial eta ekonomikoaren eraldaketa erradikal bat ematea ezinbestekoa da (Dobson, 1997). Oso ohikoa da aldaketa klimatikoaren eta ingurumen arazoaren izaera politikoa ezeztatzea (Hardt eta Scheffran, 2019). Ekologia politikoa beraz, politikoa ez den ekologiaren aurka joateko jaiotzen den korrontea izanik eta sistema-ekologikoak politikoak direla defendatzeaz gain, guk geuk haiekiko ditugun ideiak ere prozesu politikoaren eta ekonomikoaren arabera zuzenduta eta zehaztuta daude (Robbins, 2020).

3.2. Ingurumen-etika nagusien aipamen laburra: mendabaldeko ingurumen-etika *mainstream*-ak eta Afrikako ingurumen etikak.

Ekologia-politikoak, esan bezala, arreta handia jartzen dio naturaren eta gizakien artean ematen diren elkarreragin edo harremanei. Izan ere, ingurumen arazoetan eta gizakien eta naturaren arteko harremanean jartzen du fokoa (Hardt eta Scheffran, 2019). Aintzat hartu behar da harreman horiek ulertzeko modu edo bideak anitzak direla, hots; ingurumen-etika ezberdinak daudela. Ingurumen-etikak gizakiaren eta ekosistemen arteko harremanen inguruan hausnartzeaz gain, beste hainbat gauzak egiten ditu, hala nola gizakiok naturari buruz dugun ezagutza eta naturarekiko dugun erantzukizuna aztertzea eta ulertzea, besteak beste (Ojomo, 2010). Iparralde-globaleko ingurumen-etikaren barnean hiru ikuspegi edo eredu *mainstream* nabarmendu daitezke: antropozentrismoa, biozentrismoa eta ekozentrismoa, zeinak justizia-eredu ezberdinen oinarria diren: justizia-ambientala edo ingurumen-justizia, animaliekiko justizia eta justizia ekologikoa hurrenez hurren (Montalvan, 2020). Beste zenbait autorek, eko-feminismoa txertatzen dute zerrenda honetan. Kasu azterketa honetan ekofeminismoa aitzat hartuko da ere, ezinbesteko korrontea baita gaur egun.

Bestalde, ezagutzak ugariak diren eñean, hegoalde globaletik datozen beste “ingurumen-etika” anitz daude, eta horietako batzuk aipatu dira hemen, justizia-epistemikoaren alde egin nahi duen lana baita hau. Mozambike herrialde afrikarra izanik, teoria afrikarrak hartu dira kontuan, beti ere jakinda kultura, herrialde eta bizimodu eredu zeharo ezberdinak biltzen dituen kontinente erraldoia dela; eta hori dela eta gernalizazioetara jo dezakegula. Honako hau kontuan izanik, lan honetan Afrikan zehar lagungarrienak eta zabalduenak dauden teoriak edota ikuspegiak hautatu dira.

3.2.1. Mendabaldeko ingurumen-etika *mainstream*-ak: antropozentrismoa, biozentrismoa, ekozentrismoa (eta ekofeminismoa).

Ikuspegi antropozentrista, zeina akademiaren barnean ezagunena eta zabalduena den, ingurumenean burutzen diren kalteak gizakiengan eta komunitateengan eragin ditzaketen kalteetan oinarritzen da. “Natura-gizartea” dualtasunaren ideia defendatzen du. Naturaren eta baliabide-naturalen jabea izanik, gizakiak horiek erabiliko ditu aurrera eramango dituen

ekoizpen jardueretan, garapena eta ongizatea lortze aldera. Gizakia beraz, naturaren gainetik dagoen gauza da, eta ez horren barnean edo horren parte den izaki-biziduna. Ingurumena defendatuz eta babestuz gero, bere ongizatea hobetzeko helburuarekin izango da eta ez naturaren berezko balio onartzen duelako (Montalván, 2020).

Justizia-ambientala edo ingurumen-justizia deritzon justizia erdua, zeina Estatu Batuetan jaio zen 80. hamarkadan, industria ezberdinen isurketa toxikoek bertako komunitate afro-amerikarren auzo-txiroetan eragiten zituzten ondorioak salatzeke helburuarekin, ikuspegi antropozentriko honetan oinarritzen da. Defendatzen duen planteamenduaren arabera, gizakia da eskubide-subjektu bakarra, baina aldi berean naturarekiko nolabaiteko betebeharrak onartzen ditu, pertsona orok ingurumen “osasuntsu” batean bizitzeko eskubidea baitugu. Justizia-ambientalaren erdian gizakia dago eta naturarekiko bidezkoa edo bidegabekoa denari buruzko auzia pertsonengan dituen ondorioen arabera erabakiko da (Montalván, 2020). Esan bezala, aipatutako hiru justizia ereduak hedatuena da, eta ekologia politikoaren barnean kokatzen diren autore anitzen aburuz, ingurumen-justizia indartzea ingurumenaren jasangarritasuna bermatzeko oso lagungarria izan daiteke (Martínez, 2015). Aldi berean, gizarte-zibilaren barnean presentzia handia duen mugimendua da ere. Justizia-ambientalak, hain zuzen ere, maila ezberdinetan (lokalean, nazionalean, globalean...) ematen diren ingurumenarekiko bidegabekerien aurka borrokatzen du.

Lehenengo ekarpen honek zenbait kritika jaso izan ditu, hala nola ikuspegi antropozentrikoaren barnean kokatzea eta hori dela eta natura objektu bezala ulertzea, eta ez subjektu. Horrez gain, ingurumen-kostuen banaketan oinarritzen den justizia bat dela atxikitu izan zaio. Hau ikusita, naturaren balioaren aitortzea *continnum* gisara irudikatuz gero, honako hau lehen maila batean kokatzen den teoria izango litzateke.

Bigarrenik, biozentrismoa edota etika-biozentrismoa dugu, zeinak sentitzeko (eta sufritzeko) gaitasuna duten izaki bizidun orok duten berezko balioa onartzen duen. Beste hitzetan esanda, animalien eta sentitzeko gaitasuna duten bizidun guztien sentimenduak moralki garrantzitsuak kontsideratzen dira. Hots, sentitzeko gaitasuna edukitzea biozentrismoaren oinarria da. Hala ere, biozentrismoaren barnean etika edo eredu ezberdinak daude: batzuek animalia guztien berezko balioa berdina dela dioten bitartean, beste batzuk aldiz animalien hierarkizazioaren alde agertzen dira, hau da, xomorro batek ez du balio bale batek bezainbeste (Montalván, 2020). Ikuspegi baten alde edo bestearen alde egon,

biozentrismoaren helburua animalia-espezie ezberdinen biziraupena lortzea litzateke. Kasu honek ere, etika-antropozentrikoarekin gertatzen den bezala, hainbat kritika jaso ditu, hala nola indibidualista eta espezista izatea edota bio-komunitate osoa aintzat ez hartzea (Ojomo, 2010). Lehen aipatutako *continuum* lerroa honera ekarriz gero, etika biozentrista aitorenaren hurrengo urratsa litzateke.

Animaliekiko-justizia deritzon justizia-eredua biozentrismoan oinarritzen da eta animaliek ez sufritzeko berezko eskubidea dutela dio. Martha Nussbaum filosofo estatubatuarra ideia honen alde agertu zen: “*animaliak justizia subjektu dira, oinazea eta gabeziak dituzten banako animaliak baitira*» (Nussbaum, 2007: 352; apud. Montalván, 2020). Korrante teoriko honen defendatzaile famatuenetariko bat Jane Goodall zientzialari britainiarra da, zeina hainbat urtez Afrikako txinpantzeen jarrera, bizimodua zein sentimenduak, emozioak eta sententzioak ikertu zituen: “*Ez ditut inoiz txinpantzeak “ikerketa-subjektutzat” hartu, bakoitzak bere nortasun propioa duen banako gisa baizik. Haiengandik ikasten ari naiz, ez soilik haien inguruan*” (Goodall, 2002: 42). Zientzialariaren arabera, gizakiok animalien erreinuaren parte gara, eta horren parte izanik ez gaude gainontzeko animalien gainetik. Animaliak pentsatzeko eta sentitzeko gaitasuna dute eta hori dela eta errespetua zor diegu (Goodall, 2002).

Hirugarren ingurumen-etikak biosfera osoari ematen dio balioa. Ekozentrismoak, hain zuzen ere, ekosistema osotasun bat bezala ulertzen du, ikuspegi indibidualistak alboratuz. Gizabanakoa, beste animalia, mikroorganismo, edota landareekin gertatzen den bezala, ekosistemaren parte kontsideratzen den izaki-biziduna da. Natura da ekozentrismoaren oinarria eta biozentrismoak defendatzen duen sentikortasunaren ikuspegia alboratzen du (Montalván, 2020), haratago doan etika eta pentsamendu bat sortuz.

Ingurumen-eredu honen harira, justizia-ekologikoa dugu zeinak biosfera osatzen duten gauza orori (landareak, animaliak, basoak, ibaiak, mikroorganismoak, itsasoa...) eskubideak errekonozitzen dizkie. Beste modu batean esanda, natura bera eskubide-subjektua kontsideratzen du. Aldo Leopold (2017) ekologo eta ambientalista estatubatuarrek azpimarratzen duen moduan, ekozentrismoak salto-kualitatibo bat suposatzen du, natura etikaren parte kontsideratzen baitu. Horrez gain, leku ezberdinetako ezagutzen elkartrukea defendatzen duen ikuspegia da eta paradigma modernoaren transformazio holistiko baten aldarrikapena egiten du. Justizia ekologikoa ikuspegi ekozentrista baten barnean ulertu

daiteke, zeinaren oinarria eta helburu nagusia naturari eskubide-subjektu estatusa eta aintzatespena ematea den (ibidem).

Esan bezala, nahiz eta autore askok ingurumen-etikaz hitz egitean ekofeminismoa kontuan ez hartu, ezinbestekoa da honen ekarpenak aipatzea eta balioztatzea. Ekofeminismoak eredu zapaltzaileekin bukatzea du helburu. Hots, naturaren zein emakumeen gaineko zapalketekin (Ojomo, 2010). Nahiz eta hegoaldeko herrialdeen praktiketik jaio, eremu teoriko batera mugatuz gero, Francoise d'Eaubonne aktibista eta feminista izan zen kontzeptu honen sortzailea:

“Ia mundu guztiak daki gaur egun estintzioa eragin dezaketen eta gertuen dauden mehatxuak gainpopulazioa eta baliabideen suntsipena direla (...); baina oso gutxi ikusi dute oraindik bi mehatxuak duela berrogeita hamar mende gizonen boterea eman zieten bi aurkikuntza paraleloetako baten emaitza logikoa direla: lurra eta emakumeak intseminatzeko gaitasuna eta ugalketa-ekintzetan parte hartzea”
(D'Eaubonne, 1974:259)

Ekofeminismoaren barnean, bi ikuspegi edo azpi korrante ezberdin nabarmendu daitezke: alde batetik esentzialista edota biologizista dugu, zeinak gizonezkoak kulturarekiko lotura zuzenagoa duten bitartean emakumeak naturatik gertuago daudela defendatzen duen (Ortner, 1974). Horrez gain, “emakumezkoen-ezberdintasuna” ospatzearen alde agertzen da azpi-teoria hau; hau da, emakumeenak kontsideratzen diren ezaugarriak goraiatzea, hala nola, zaintza, sentikortasuna, emozioak... (Salleh, 1991). Bestalde, korrante konstruktibista dago zeina emakumeen eta naturaren arteko harreman estua gizarte-erakuntza baten ondorio dela dio (Herrero, 2015). Ikuspegi hau defendatzen duten ekofeminista ugari daude hala nola Yayo Herrero katalana, Bina Argawel indiarra edota Alicia Puleo argentindarra.

3.2.2. Afrikako ingurumen-etika nagusiak: “Ingurumen-harreman etika”, “eko-bio-komunitarismoa” eta “eko-humanismoa”.

Aipatutako iparralde globaleko ikuspegiak Afrikako akademiako zenbait ikertzaileengan nolabaiteko influentzia izan dutela esan daiteke. Esaterako, Polycarp Ikuenobe irakasle nigeriarraren arabera, premisa antropozentrikoen ideia nagusien alde eginez, natura

beharrezkoa da gizakion ongizatea lortzeko lagungarria den eñean soilik (Ikuenobe, 2014; apud. Onyebuchi, 2017). Zenbait autorek dioten moduan, ingurumenarekiko dauden mendebaldeko ikuspegiak Afrikan inposatu izan dira eta afrikarrak balira bezala artikulatu dira (Onyebuchi, 2017). Honen beste adibidea, Segun Ogungbemi filosofo nigeriarraren “ingurumen-harreman etika” izeneko teoria litzateke.

Segun Ogungbemik, 1997ko “*An African Perspective on the Environmental Crisis*” izeneko liburuan, zenbait ekarpen antropozentriko bereganatu zituen krisi-klimatikoari aurre egin ahal izateko zenbait hausnarketa etiko eta neurri proposatzeko helburuarekin. Afrikako ingurumen-krisia ulertzeko orduan, hiru arrazoi planteatzen ditu: pobrezia eta ezjakintasuna, teknologiaren eta zientziaren erabilera txarra zein gatazka politikoak eta nazioarteko presio eta zapalkuntza ekonomikoa. Hala ere, ikuspegi antropozentrikotik haratago doa afrikar kulturen ezaugarri bat azpimarratuz eta balioan jartzen: komunitate-nekazarien etika hain zuzen ere, zeinaren arabera pertsonak soilik bizirauteko behar dutena hartuko dute naturatik. Ideia hau “zaintzaren etika” deritzo, eta autorearen arabera, ingurumenarekiko harreman-etika ideia honetan oinarritu beharko litzateke. (Ogungbemi, 1997). Ikuspegi honek zenbait kritika jaso izan ditu, antropozentrikoa izateaz gain, askotan lan honek Afrikako sinismen-sistemari garrantzirik eman ez diola atxikitu izan baitzaio (Stephen eta Otteh, 2017).

Egoera honen aurrean, mendebaldetik inposatutako ezagutzaren “monopolioari” aurre eginik, zenbait ekarpen eraman dira aurrera: Godfey Tangwa irakasle kamerundarraren “eko-bio-komunitarismoa” eta kosmologia Bantuan oinarritzen den Michael Onyebuchi filosofoak proposatutako “eko-humanismoa” horren adibide dira.

Godfey Tangwa filosofo kamerundarrak (2004), “*Some African Reflections on Biomedical and Environmental ethics*” (2005) izeneko obran, ingurumenaren-krisiari aurre egiteko kolonizazio garai aurreko afrikar gizarteei buruzko azterketa bat burutzen du begirada metafisiko baten bitartez. Tangwa-ren arabera, gizarte horien ezaugarri nagusia “eko-bio-komunitarismoa” zen (Stephem eta Otteh, 2017). Mundua ulertzeko marku-metafisiko batean oinarritutako kolonialismoaren aurreko bizimodu honek, Tangwak-en aburuz, ahalbidetzen zuen gizakien, animalien eta lurraren arteko harreman baketsu baten existentzia. Aldi berean, Tangwa mendebaldeko herrialdeek teknologia erabiltzen duten moduaren aurka agertu zen, erabilera horrek dominazioa baitu helburu

nagusi. Ogungbemik ez bezala, Tangwak Afrikako ikuspegi metafisikoa aintzat hartzen du etika ekologiko berria eraikitzerako orduan.

Ikuspegi-bantua eta hortik eratorritako eko-humanismoa Tangwa-ken eko-bio-komunitarismoaren zenbait ideiekin bat dator. Ikuspegi bantu tradizionalaren arabera, elementu orok bere indar propioa dauka eta elementu guztiak (bizidunak, hildakoak, pentsatzeko gaitasuna ez dutenak, jaio ez direnak...) saretuta daude eta harreman holistiko estua dute euren artean. Hau da, elementu baten indarrak gainontzeko elementuengan zuzeneko eragina du. Ikuspegi bantuarentzat, natura materiala, sakratua eta erlijiosoa da. Elementu guztiak indarra duten eñean, natura berak ere bai, eta hori da sakratu-estatusa ematen diona. Gizakia beraz, eko-komunitate horren zati txiki bat da eta naturak elementu horren beharra duen moduan, gizakiak naturaren beharra du ere bai. Kolonizazioa eta gero ezarritako modernizazioa orekan oinarritutako harreman eredu hau hautsi du guztiz, bizimodu indibidualisten garaipena emanik eta ekosistemen degradazioa eraginduz. Hori dela eta, bantuen ekarpenak hartuta, Michael Onyebuchi Eze filosofoak ingurumen-etika afrikar bat proposatzen du: eko-humanismoa, zehazki.

Eko-humanismoaren arabera, gizakia izateak ez du esan nahi pentsatzeko eta arrazoitzeko gaitasuna izatea. Aitzitik, norbanakoaren gizatasuna gainontzeko gizakiekin, animaliekin, espirtuekin eta naturarekin harreman on eta orekatu bat izatearen menpe dago. Naturaren eta gizakien arteko harremana guztiz holistikoa eta horizontala da; hots, batak besteak duen balio adina du. Eko-humanismoak ere zera dio: gizakia naturaren barne bizitzen duen bitartean, natura horren parte da. Hau da, esan daiteke bi “kokapen” ezberdin dituela. Aldi berean, ingurumen-inperialismoaren aurka agertzen den teoria da; hau da, testuinguru eta komunitateen esperientziak kontuan hartzearen garrantzia nabarmentzen du (ibidem).

Ikuspegi hau Ubuntu deritzon filosofia bantuaren hurrengo urratsa kontsideratu daiteke. Ubuntu hitzak “gizatiarra” esan nahi du. Gizakia izatea, filosofia honen arabera, besteekin eskuzabala eta errukibera izatea esan nahi du: “*ni, geu garelako naiz*” edota “*pertsona batek beste pertsonen beharra du pertsona izateko*” dira korrante honen leloetariko batzuk. Komunitatea bizitzaren eta identitatearen erroa da, eta gizabanako oro garatu ahal izateko, pertsonen arteko interdependentzia ematea ezinbestekoa da (Kakozi, 2013). Honetan oinarrituta, eko-humanismoak gizakiak ez diren izakiak gehitzen ditu. Hau da, gizakiak

egiten gaituena beste izakiak (gizakia izan edo ez) aintzatestea litzateke: *“gizaki batek beste izakien beharra du gizakia izateko”*.

4. ANALISIA

4.1. I Atala: Gerra eta erauzketa-jardueren ingurumen ondorio eta ondorio ekologikoen gaineko hurbilketa teorikoa.

Afrika bere substantziatik hustu dute, baina eman diotena hutsik dago ere”

(Joseph Ki-Zerbo)

Gaur egungo krisi klimatikoa sistema ekonomiko kapitalista eta neoliberalaren zein militarizazio eta gerren ondorio zuzena da (Centre Delás, 2021). Bi hauek, hain zuzen ere, naturan eta naturaren eta gizakien arteko harremanetan eragin zuzena izan dute. Korporazioen boterea, euren jardueren ondorioz eragindako isuriak eta beste ekintzak (hala nola erauzketa-prozesuak eta horiek burutu ahal izateko aurrera eramaten den erauzketa-mugen higadura), zein armak eta gerrak dira iparralde globalaren pribilegioak mantentzen dituztenak. (Brunet, 2021)

4.1.1. Kalte ekologikoak erauzketa-prozesuetan: nazioarteko harreman ekonomikoak eta gas-erauzketen mugen higadura.

Garai kolonialarekin alderatuta, non helburu nagusia gainontzeko herrialdeen ondasunak eta baliabideak eskuratzea zen, gaur egungo sistema sozioekonomiko kapitalista, neoliberal eta patriarkala bizirauteko ezinbestekoa da energia-baliabideak eta natura-baliabideak bereganatzea (Nseng, 2018). Hots, mendebaldeko sistema kapitalista hegoalde globalaren ondasunen menpe dago guztiz. Are gehiago, ekonomia zirkular baten faltan, eredu kapitalistak energia-iturri berriak bilatu behar ditu etengabe, gaur egungo kontsumo-maila bermatua egoteaz gain, hura handitzeko aukera egon dadin ere. Geroz eta kapital kopuru gehiago metatu nahi duen eredu kapitalistak eta neoliberalak baliabide naturalen zein lurren gaineko mendekotasuna izateak gatazka-sozioambientalen kopurua handitzea eragiten du (Beristain, 2019)

Petrolio zein gas industria ezberdinek bi bideen bitartez gainditu dute erregaien agortze-sistemikoaren ikuspegia: alde batetik, harri trinkoetatik hidrokarburoak ateratzen ikasiz, eta bestetik, erreserba berriak bilatuz lehen iritsezinak kontsideratzen ziren eremuetan,

hala nola ur ozeanikoetan, besteak beste (Klare, 2018). Hauxe posible izan da teknologia berrien garapenari esker. Esate baterako, *fracking*-aren, GNL merkatuaren eta ur sakonetako zulaketa-teknologiaren garapenaren bitartez, besteak beste, erauzketa enpresek, esan bezala, iritsezinak kontsideratzen ziren lekuetatik baliabideak ateratzea lortu dute (Llaverro-Pasquina, Navas et al., 2024). Geroz eta ohikoagoa da erauzketa-proiektuak lurralde-indigenetara zabaltzea, non komunitateen eta naturaren arteko harremana oso estua izaten den, natura komunitate hauen kosmobisioaren eta identitatearen parte izaten baita (Martín Beristain, 2010) Zabaltze prozesu honi erauzketa mugen higadura deitu zaio eta Afrikako kontinentea osatzen duten herrialde asko horren biktima bihurtu dira. Teknologia berriak ez ezik, hegoalde globaleko herrialdeen gobernuek jarduera hauekiko adierazi duten prestutasuna, laguntza eta babesa ezinbestekoak izan dira ere (Llaverro-Pasquina, Navas et al., 2024).

“Erauzketa” (*extractivismo* gaztelaniaz) marko neoliberal honen barnean aurrera eramaten den eredu bortitz bat litzateke. Kontzeptu honek definizio ugari jaso izan ditu. Batzuen ustez baliabide-naturalen erauzketa eredu jakin bat da, zeina intentsitate altukoa den, bolumena oso handiak ateratzen dituen eta esportazioetara bideratuta dagoen. Gudynas-ek (2018), CLAES-eko zuzendariak, antzeko definizioa erabiltzen du:

“Erauzketa kontzeptuak bolumen handietan eta/edo intentsitate handian baliabide naturalak bereganatzeko eredu-motari egiten dio erreferentzia, non erdia edo gehiago lehengai gisa esportatzen den, prozesamendu industrialik gabe edo prozesamendu mugaturik gabe” (Gudynas, 2018:62)

Esplotazio-faseaz gain, erauzketak/estraktibismoak aurretik eta ondoren ematen diren prozesuak biltzen ditu: esplorazioa, aurkikuntza, itxiera eta desjabetu den espazioa bertan behera uztea (Gudynas, 2013; apud. Walter, 2018). Natur-baliabideen erauzketak, ingurumenarekiko eta gizartearekiko inpaktu zuzena izateaz gain, indarkeriaren beharra du eta naturaren zein gizakien eskubideak urratzen ditu.

Europar Batasunak (EB), bere gastu-militarra handitzeaz gain, gas inportazioak handitu ditu, batez ere GNL-rena (Alberdi, 2022). Nahiz eta fenomeno berria ez izan, Ukrainako inbasioak eragindako gas-hornikuntzaren murrizketak gas-erauzketa mugen hedapenaren bizkortzea ekarri du, Afrikako ekialdeko herrialdeak foku berria bilakatuz. Izan ere, nahiz eta aldaketa-klimatikoaren ondorioak zuzenki jasaten ari den kontinentea izan, bertan

iparralde-globaleko enpresen zein hauek burutzen duten finantzaketen bitartez, erregai-fosilen erauzketara bideratuta dauden proiektuen hazkunde ikaragarria ematen ari da, bertako bizimodua, biztanleria eta ekosistemak kaltetzeaz gain, komunitateen energia-berriztagarrien erabilera helburu duen bidezko trantsizio baterako bidea oztopatuz ere. Azkeneko datuen arabera, Pariseko Akordioa sinatu zenetik, funtzionamenduan zeuden ia 800 erauzketa-proiektuez gain, 111 erauzketa proiektu berriak garatzea akordatu eta proposatu da ere, bertan sinatutako konpromezua betetzea ezinezkoa bilakaturik. (Banktrack et al., 2022).

Arrazoi handia izanik, Ukrainako gerra ez da gas-erauzketa mugen hedapenaren arrazoi bakarria izan. Aitzitik, atzetik datorren fenomeno da. Mendebaldeko herrialdeak, beraientzat kokapen ona duten eta kalitate onekoak diren baliabide-naturalak agortzen dituzten heinean, erauzketa-mugak zabaltzen ari dira komunitate indigenen lurraldeetara zein biodibertsitate handiko espazioetara (Walter, 2017). Ez hori bakarrik, OCik aurrera eramandako ikerketa baten aurreikuspenen arabera, erregai fosilen ekoizpenaren herena oso txiroak diren herrialdeetan eramango da aurrera, hala nola Mozambiken, Ugandan edota Senegalen, besteak beste.

Proiektu hauek aurrera eramaten ari diren eta eramango dituzten konpainia gehienak ez dira afrikarrak. Gehienak “garatuak” kontsideratzen diren herrialdeetatik datozen enpresak dira: Total Energies (frantsesa), ENI (italiarra), Chevron (AEB), ExxonMobil (AEB), China Petroleum (txinatarra)... Esportaziora bideratuta dauden jarduerak izanik, irabaziak kontinentetik at eramango dira, eta hori dela eta, nahiz eta erregai fosil ugari eduki, energia gabezia Afrikako herrialde ugariak duten arazoa da.

Enpresa transnazionalen gain, AEBko, EBko eta Txinako finantzaketa erakundeen papera oso garrantzitsua izan da. Iparralde globalean energia-berriztagarrien proiektuak finantzatzen dituzten bitartean, hegoaldeko herrialdeetan aurkakoa gertatzen da; hots, kutsagarriak diren erregai fosiletan inbertitzen jarraitzen dute, bertako kostuak txikiagoak direlako eta iritzi-publikoaren agentzia eta horren ondorioz intzidentzia politikoa burutzeko gaitasuna askoz apalagoa (ibidem).

Esan bezala, gas-erauzketaren mugen zabaltzeak, praktika neokolonialisten birproduzioaz gain, hegoaldeko herrialdeen ingurumena eta ekosistemak kaltetu ditzake. Watts-ek (2001)

“*indarkeria ekologikoa*”-z dihardu, zeinak mundu biofisikoaren eta bertan ematen diren harremanen aurkako indarkeria agerian uzten duen. Hots, indarkeria mota honen erdigunea natura litzateke. Honen harira, “*ekoizidua*” bezalako kontzeptuak sortu izan dira, zeinak ingurumenaren suntsiketa salatzen duten (ibidem). Estraktibismoak ez du natura bizitza-sarea kontsideratzen, lehengaien “*stock-a*” baizik, eta horrek, hain zuzen ere, ekosistemen kolapsatzea eragiten du (Álvarez, 2018).

Proiektuak burutzen diren guneetan, geroz eta arruntagoa dira ura eta luraren kutsadura, lehortekak, uholdeak zein biodibertsitatearen galera. Gainera, erregai fosilen kasuan, hauek lortzeko burutu beharreko jarduera guztiak (zulaketa, zulaketarako lohi toxikoen isurketa, itsasoan kokatzen diren azpiegituren eraikuntza, itsasontziek eta helikopteroek burututako horniketa, aire-kanoien eta kanoi-sismikoen erabilera...) zuzeneko eragina dute biodibertsitatean, itsasoan kasu, non frekuentzia baxuko sonarrek faunaren desplazamendua, orientazio-falta, animalien zauriak, heriotzak... eragiten dituzten (Say No Gas in Mozambique, 2022). Bestalde, erauzketa jarduerak CO₂ eta beste substantzia toxikoen (hala nola metanoa) isurketa mailen hazkundea suposatzen dute. Era berean, gas errektuntzak euriaren azidotetasuna areagotu du. Proiektu mota hauek garatu ahal izateko beharrezkoak diren azpiegiturak eraikitzerako orduan, hegoalde-globaleko komunitateentzat hain baliotsuak diren landak, erreserba naturalak zein basoak suntsitu dituzte, hainbat landareen eta animalien egoera larriagotuz eta zenbait kasutan ere biodibertsitatearen galera eta desagerpena suposatuz.

Etengabeko erauzketa-mugen hedapenaren ondorioz, ingurumenaren eta naturaren suntsiketaz gain, aldaketa-klimatikoaren areagotzea eman da ere, eta geroz eta gehiago dira horren biktima bilakatzen ari diren komunitateak. Hegoaldeko herrialdeak, hala nola Afrikako herrialde ugari, dira aldaketa-klimatikoaren eragin zuzen eta bortitzenak jasaten ari direnak. Mozambique horren adibide da, zeina 2019an itsasoko-uraren tenperatura igoeraren ondorioz bere historiako bi zikloi bortitzenen biktima izan zen. Zikloiek 600 hildako uzteaz gain bi miloi pertsona larriki kaltetu zituen (Banktrack et al., 2022).

Aipatutako kalte hauen ondorioz, enpresa transnazionalen eta antolatuta dauden komunitate-taldeen arteko talka eta gatazkak oso ohikoak dira (ibidem). Gatazkak ez ezik, erauzketa mugen higadurak ere bertako gobernuen ustelkeria mailaren handitzea eta langile zein komunitateen Giza-Eskubideen urraketa eragin dezake (Greenpeace, 2023). Muga

estraktibistak, beste modu batean esanda, baliabideen inguruko gatazka berriak sortzen ditu eta horrek bertako komunitateen, lurraldearen eta nazioaren arteko harremanarengan eta antolaketarengan aldaketa nabarmenak eragiten ditu (Rassmusend eta Lund, 2018).

Mendebaldeko herrialdeek naturarekiko duten jarrera kanpotasunean, nagusitasunean eta instrumentalizazioan oinarritzen da; hori dela eta, garapenaren ulerpen neoliberala planetaren mugen aurka doala esan daiteke (Herrero, 2019). Erauzketa-mugen higadura metaketa ikuspegi batean oinarritzen da. Metaketa eredu kapitalista, neoliberal eta patriarkal honek bizitzetan dituen ondorioak geroz eta nabariagoak dira. Botere transnazionalak nazioarteko maila edota eremu politikoan eta ekonomikoan jarduten duen arren, eragiten dituen ondorio kaltegarriak eremu lokalean, hots, bizitza garatzen den espazioan birproduzitzen dira (Alberdi, Oianguren, 2023). Amaia Perez Orozco ekonomista eta feministak, “kapital-bizitza gatazkaz” dihardu “*Subversión Feminista de la Economía*” (2019) izeneko obran. Bertan aurkezten den ikuspuntuaren arabera, eredu kapitalistaren metaketa-prozesuaren eta bizitzaren-jasangarritasunaren arteko gatazka konponezin baten aurrean gaude. Metaketa prozesuak, hain zuzen ere, eko-mendekotasuna eta elkarrekiko mendekotasuna ukatzen duen bizitza-eredu bat eraiki du (Orozco, 2019). Are gehiago, ez du natura subjektu kontsideratzen, irabazi ekonomikoak lortzeko beharrezkoa den baliabidea edo lehengaia baizik. Ekarpen teoriko feminista honek korporazioen boterean, erauzketa prozesuetan, neokolonialismoan eta erauzketa-mugetan oinarritzen den ekoizpen-harremana indarkeria eta gatazkak eragiten dituen eredu bezala ulertzen eta ikertzen du (Alberdi eta Oianguren, 2024; apud. Pérez Orozco, 2019). Kapital-Bizitzaren teoria osatzen duten kategoria ezberdinei esker posible da analisi sakonak burutzea, bizitzaren jasangarritasuna eta maila lokalean oinarritzen den bake-eraikuntzan oinarritutako agenden sorkuntza helburu nagusia izanik (Alberdi eta Oianguren, 2023).

Kapital-bizitzan oinarritzen diren gatazkek indarkeria mota ugari sortu dituzte: zuzeneko biolentzia, estrukturala, ekosoziala... Azken indarkeria mota hau ikertzeko eta lantzeko ezinbestekoa da erauzketa prozesuek mundu ekofisikoaren aurka eragiten dituzten ondorio kaltegarriak kontuan hartzea. Eredu ekonomiko neoliberal eta bertan aurrera eramaten diren esplotazioek, pribatizazioek eta merkantilizazioak, planetaren bizitza mantentzen duten dinamikak hausteaz gain, krisi ekosozial handia suposatzen dute (Alberdi eta Oianguren, 2023).

Aipatu moduan, iparraldeko herrialdeek, lurraren mugak zein ingurumen oreka eta oreka ekologikoak ez dituzte aintzat hartu erauzketa eta erauzketa-mugen hedapena aurrera eramateko orduan (Brunet, 2021). Baliabideen madarikazioa izeneko paradoxaren arabera, lehengai edota baliabide ugari dituzten herrialde anitzeko herritarrak eta komunitateak gatazka bortitzen biktima bilakatzen dira, euren identitatearen parte den habitata narriatzeaz eta kutsatzeaz gain, euren lurren desjabetzea bizi behar izan dutelako, besteak beste. Izan ere, erauzketa-jarduerek eragiten dituzten kalteak anitzak dira: aipatutako ingurumen kostuak eta kostu ekologikoez gain, politikoak, soziokulturalak eta ekonomikoak horietako batzuk dira (Walter, 2018). Erauzketa-sistemak iparralde globalarekiko mendekotasuna indartzen du, hegoalde globaleko herrialdeak lehengai-esportatzaileen rola mantentzera behartzen baititu. Kostu soziokulturalak dagokionez, erauzketa prozesuek komunitate eta herrien biziraupenerako ezinbestekoak diren ekosistemen desjabetzea suposatzen dute. Bestalde, dimentsio politikoari dagokionez, herrialdean izan dezaketen pisu ekonomikoa medio, enpresa transnazionalen interesak bertako emakume eta gizonen interesen aurretik geratzen dira, herrialdearen demokrazia maila ahulduz (Álvarez, 2018).

Emakumeen kasuan, ondorio kaltegarriak oso nabarmenak dira. “Emakumeen Aurkako Diskriminazio Mota Guztiak Ezabatzeari Buruzko Konbentzioaren” (CEDAW,1979) doktrinaren barnean aurkitzen diren gomendio orokorrek (RG erderaz) aldaketa klimatikoaren eta emakumeen bizitzen degradazioaren arteko lotura zuzena dagoela aitortzeaz gain, gatazka sozioambientaleko egoera batean landa eta arrantza eremuetan bizi diren emakumeen zaurgarritasun maila salatzen dute (37 RG, I.2). 37. gomendioak, zehazki, erauzketa jarduerak eragiten dituzten inpaktuen inguruan dihardu:

“Hondamendiek eta klima-aldaketak emakumeen bizitza kaltetzen duten zuzeneko ondorioak eragiten dituzte, eta bereziki, pobrezia egoera batean bizi direnen kasuan, beraien biziraupenerako beharrezkoak diren baliabideak kaltetzen dituztelako. Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun ekonomikoak (...) diskriminazioaren ondorioz indartzen dira. Horren barruan sartzen dira, besteak beste, lurraren eta ondasunen jabetza eta kontrola murriztea, (...), ingurumenaren suntsiketa, erauzketa-industriek eta arautu gabeko industria-edo industria-jarduerek eraginda (RG, 37, 2017, 61.atala).

Emakumeek jasan beharreko lekualdatzeen ondorioz, tradizionalki burutu izan dituzten nekazaritza-jarduerekin jarraitzeko aukera galtzen dute (Nseng, 2018). Ez hori bakarrik, emakumeak askotan ez dira desplazamenduei hasiera eman baino lehen aurrera eramaten diren kontsulta prozesuen parte, eta behin tokialdaketak gauzatu diren, ohiturazko zuzenbidearen ondorioz lurrarekiko duten erabakitze gaitasuna txikia izanik, askotan ez dute konpentsazio-ekonomikoa jasotzeko aukerarik (Banktrack, 2022).

Erauzketa prozesuek burutzen dituzten indarkeria mota “ohikoez” gain (zuzena, estrukturala eta kulturala), Nixon-ek (2013) proposatzen duen “*indarkeria motela*” burutzen dute ere. Kontzeptu honek osasunaren gaineko eta ingurumenaren gaineko inpaktua gizakien eta naturaren aurka doan indarkeria-iturria kontsideratzen du (Nixon, 2013; apud, Walter, 2018). Honen adibide argiak, aurretik aipatu izan diren aldaketa klimatikoa edota uraren, airearen eta luraren kutsadura lirategi, zeinek Nixon-en arabera, eragin zuzena duten pertsona txiroen osasunean eta haien ingurumenean.

Baliabideen gaineko gatazka hauek, komunitate lokalen bizitzan narriadura dela eta, gerran amaitu daitezke, komunitateak zein natura bera kaltetuz. Marku honetan koka dezakegu gure ikerketa, non Walter-ek (2018) salatzen duen moduan, eredu estruktibistak indarkeria ezberdinak dagoeneko eragin eta etorkizun batean eragingo dituen.

4.1.2. Gerrak eragindako kalte ekologiko eta ingurumen-kalteen azterketa teoriko orokorra

13. printzipioa: ingurumena errespetatu eta babestuko da aplikatzekoa den nazioarteko zuzenbidearen arabera, eta, bereziki, gatazka armatuen eskubidea (Nazioarteko Zuzenbidearen Batzordea, 2019:276)

Gizakiak eta komunitateak ez ezik, ingurumena eta natura ere gatazka-politikoaren biktima dira maiz. Honako hau ez da fenomeno berria. Aitzitik, historia osoan zehar estrategia militar ezberdinak eraman dira aurrera etsaien ingurumena eta ekosistemak suntsitzeko helburuarekin, hala nola Vietnam-eko gerran non “Agente Laranja” belar-pozoiaren erabilerak eragindako bertako lurzoruaren kutsadurak zuhaitzen hostoak galarazi zituen. Teknologiaren eta militarizazioaren garapena dela medio, teknika hauen inpaktua askoz

suntsitzaileagoa bilakatu da. Fenomeno honi “ingurumen-terrorismoa” (*environmental-terrorism*) deitu izan zaio (Tarkhani, 2024).

Gehienetan, gerraren helburu nagusia ez da ingurumenaren eta naturaren degradazioa, hots, “ingurumen-terrorismoa”. Hala eta guztiz ere, gatazka berak ondorio kaltegarriak izan ditu eta jarraitzen ditu izaten bai naturaren bai gizakiaren eta naturaren arteko harremanetan. Gould izeneko ingurumen-soziologoaren arabera, ikuspegi ekologiko batetik aztertuta, militarizazioa giza-ekintza suntsitzaileena da (Gould, 2007; apud.Meulewaeter, 2021). Cynthia Enloe (2012), feminismitik abiatuta, modu honetan definitzen du militarizazioa:

“Zerbait armadaren -erakunde gisa- edo irizpide militarren kontrolpean, edo haren mende, edo hark ematen dion balioaren arabera izatera igarotzen deneko urratsez urratseko prozesua da, zeina hainbat mailatan gertatzen den“ (Enloe, 2000; apud. Mendia, 2017: 23).

Gerrek (gerra-ekonomia barne) eta militarizazioak CO2 isurketa maila altuenak eragiten dituzte mundu mailan. Hau da, berotegi-efektuko gasen igorle nagusia, hots, gerra bera da kolapso klimatikoaren eragile nagusietariko bat (Ortega, 2023). Baita militarizazioa ere, eredu ekonomiko jakin bat mantentzeko erreminta nagusia da, *status quo* politiko eta ekonomikoa mantentzeko aukera ematen baitu. Ez hori bakarrik, gerra eta militarizazio prozesuek berotegi efektua areagotzen dute ere, isuriak sortzen dituzte, planeta berotzen dute eta klima-larrialdi eta ingurumen-larrialdi egoerak sortzen ditu, batez ere hegoalde globaleko herrialdeetan (Brunet, 2021). Jarduera militarrek, material arriskutsuen erabileraren eta isurketa toxikoen ondorioz, lur zein itsasoko ekosistemak kutsatzen dituzte, erregai fosil kopuru handiak kontsumitzen dituzten hegazkinak, itsasontziak eta kotxeak erabiltzen dituzte, eta gauzatzen duten deforestazioa medio, biodibertsitatearen galeraren erantzule dira. Gatazka egoera batean aurrera eramaten diren ekintzek airearen kutsadura mailaren hazkundera eragin dezakete; hala nola erregaiak erreketara edota azpiegituren suntsipena (Tarkhani, 2024). Horrez gain, arma nuklearren, kimikoen edota biologikoen ekoizpena, biltegitratzea, garraiatzea eta deuseztatzea ekosistemerako arrisku-faktoreak bilakatu daitezke (Bohigas eta De Fortuny, 2022).

Oso urriak dira fenomeno hau aztertzen duten teoriak. Horietako bat “Suntsipenaren Gurpila” da, zeinak krisi klimatikoaren eta militarizazioaren arteko harremana ikertzen duen. Teoria

honen arabera, militarizazio prozesua ekoizpen-gurpilatik at dago, eta hori dela eta, militarizazioak ingurumenarekiko kalte zehatz batzuk eragiten ditu: gatazka-armatua iraun bitartean, armek (nuklearrak, kimikoak zein biologikoak batez ere) lur eta itsas-ekosistemak kutsatzen dituzte. Aldi berean, gerrek biosferaren narriadura eta deforestazioa eragin dezakete. Horrez gain, base militarretan erabiltzen diren energiak zein baliabideek CO2 isuriak eragiten dituzte (Meulewaeter, 2021). Gainera, entrenamendu militarrek, baso suteen arriskua areagotzeaz gain, lurraren degradazioa eta berotegi-efektuko gasen isuriak eragiten dituzte ere (Bohigas eta De Fortuny, 2022). Haratago, bertan aurrera eramaten diren entrenamenduek ura eta lurra kutsatzen dituzte. Harrezkero, militarizazioak energia kontsumoa areagotzen du eta behin gerra amaituta, gatazka-osteko eraikuntza jarduerak baliabide eta energia ugari behar dituzte (Meulewaeter, 2021).

Tamalez, nahiz eta teorikoki lantzen hasi den gauza izan, gaur egun indar armatuak ez daude behartuta burutzen dituzten CO2 eta gas isuriaren inguruko txostenak aurkeztera (Ortega, 2021). Gaur egun, indar-armatuen ekintzek eragiten dituzten isuriaren gaineko informazioa ematea borondatezkoa da eta herrialde gehienek informazio hori ez plazaratzea erabakitzen dute; edota egin ezker, soilik base militarren energia kontsumoa hala nola hegazkinen, itsasontzien eta automobilen funtzionamendurako erabiltzen dituzten erregaien datuak hartzen dituzte kontuan, zeharkako isuriak kontuan hartu gabe, hala nola horniketa militarerako kateek eta armen ekoizpenak eragiten dituztenak (Bohigas eta De Fortuny, 2022),

Bestalde, potentzia handiek enpresa handien interesak babesten dituzte, eta horiek erresistentzia lokalen ekintzen ondorioz mehatxatuak sentitzen direnean militarizazioari ekiten diote, BPG-ren hazkundearen eta militarizazioaren artean zuzeneko harreman bat sortuz (Ortega, 2021). Cabo Delgadoko kasuan, adibidez, indar-armatuen benetako rola korporazio transnazionalen inbertsioak babestea da (Friends of Earth International, 2020). Hori dela eta, estraktibismoaren babesara bideratutako militarizazioa ere bai, estraktibismoak berak eragiten dituen kalte ekologikoez gain, kalte horien erantzulea dela esan daiteke.

Gatazken edota gerren ondorio nagusietako bat biztanleriaren desplazamendua da. Izan ere, komunitateen bizimodua guztiz aldatzeaz gain, ekosistemaren antolaketan eta orekan inpaktu nabarmena suposa dezake. Hots, desplazamendu masiboen ondorioz presio-demografikoaren hazkunde nabarmena eman daiteke zenbait tokitan, eta horrek, hain zuzen ere, zuzenki kaltetu

ditzake bertako ekosistemak, lurren gain-ustiapena eman daitekeelako. Kontrara, gerraren ondorioz hutsik geratu diren herrietan eta espazioetan animalien birpopulaketa eta baso-berritzea eman daiteke. Tamalez, gerra eta kapital logika baten barnean kokatuz gero, baliteke birpopulaketa eta baso-berritze hura posible ez izatea. Zuzenki kaltetuak izango diren pertsonak ez egoteak erauzketa jardueren inpaktuak aregotu eta kaltetu ditzake, inzidentzia eta presio politikoa askoz eskasagoa izanik, enpresek euren jarduera ekonomikoa modu askeago batean burutu ditzaketelako.

Militarizazioak eta gatazkek ere ingurumena eta natura kaltetu dezakete zeharka. Izan ere, gatazka armatuak ematen direnean, aldaketa klimatikoaren aurkako borrokara bideratuta dauden garapenerako proiektuak eten egiten dira maiz. Gainera, militarizazioak ingurumenean dituen eraginaren ondorioz, emakumeen egoera larriagotu daiteke. Izan ere, Afrikako nekazal-komunitate gehienetan nekazaritza-jardueraren %80a emakumeak burutzen dute. Gerra hasten denean, gizonak gerrilletara edota indar armatuetara sartzen diren bitartean, emakumeek errefuxiatu-kanpamenduetara ihes egin behar dute euren lurak galduz eta horren ondorioz, euren autonomia eta ahalduntzea (Muleta, 2017).

Gainera, gatazka eta gerra testuinguru batean oso ohikoa da talde-armatu ofizialak zein indar paramilitarrak euren aktibitateak aurrera eraman ahal izateko behar duten finantzaketa lortzeko herrialde baten ekosistema osatzen duten faunaz eta floraz baliatzea. Afrikako historia garaikideko urteetan zehar oso arrunta izan da. Horren adibide, Sierra Leonako odolezko-diamanteen kasua, Ugandako indar-armatuak finantzatzeko burutzen diren boli-salmenta edota Somaliako talde terroristak (*Al-Shaabab*) ezarritako ikatzaren gaineko zerga, besteak beste (República de Mozambique, 2023).

4.2. II. ATALA: KASU AZTERKETA: Cabo Delgado (Mozambique): Gerra, gasa eta natura batzen dituen probintzia

“Ez da beharrezkoa arrantzalea izatea, merkataria, arotza, hiritar hutsa izan zaitezke, baina itsasoan gertatzen dena, gurea bezalako komunitate batentzat... hori gure bizitzan islatzen da”. (Grupo-Focal, Quissanga, 2012)

4.2.1. Mozambiqueko historia garaikidea eta gaur egungo egoera.

Mozambiqueko historia garaikideak gatazka eta gerra ugari biltzen ditu. Herrialde hau, zeina Portugaleko kolonizazio prozesuaren biktima izan zen, independentzia lortu zuen 1975eko ekainaren 25ean, Lusakako Akordioak sinatu eta gero (Meneses, 2020). Independentzia lortzeko, 1963tik 1974ra Portugaleko indar-armatuen eta Mozambiqueko Askatasunerako Frontearen (FRELIMO) artean gatazka armatu bat eraman zen aurrera. FRELIMOk, autodeterminazioaren eskubidearen alde egiteko diskurtso nazionalista bat zabaldu zuen herrialde osotik (Meneses,2020).

Independentzia gerra azaltzen duten bi diskurtso nagusi daude: Portugaleko inperio kolonizatuaren amaieran fokua jartzen duen makronarratiba, zeinak Krabelinen Iraultzaren ondorio gisa ulertzen duen independentzia; eta bestetik Afrikako ikuspegitik aztertzen duen hura, hau da, herrialdearen independentzia lortzeko burutu ziren barne erreparatzen diona (Meneses, 2020). Hauxe aipatzea ezinbesteko puntua da, historiaren kontakizun hegemoniko baten atzean historia ulertzeko forma eta memoria kolektibo ugari baitaude.

Behin independentzia izanik, FRELIMOren gobernuak, bere agintaldia iraun bitartean, herrialdearen barne-kohesioa bultzatzeko memoria kolektibo bat eraikitzen saiatu zen, gainontzeko memoria disidenteak isilaraziz eta kolonizazio garaiko herentzia koloniala erroitik desagerraraziz (ibidem). Ideologia marxista-leninista bat jarraituz, eredu politiko sozialistaren bidea jarraitu nahi izan zuen (Sefane eta Losada, 2020), Estatu unitarista eta zentralista bat eraikitze aldera. Horretarako, edozein aldarrikapen etniko edota erregionalekin amaitu nahi izan zuen. Izan ere, 1975etik 1980. urtera, *“Abaixo o tribalismo”* (“tribalismoa behera”) izan zen FRELIMOren lelo politiko nagusia eta *“moçambicanidade”*-a

(“mozambikentatea”) helmuga. Nahiz eta honako diskurtso hau hiriguneetako biztanleriaren artean hedatzea lortu, landa eta arrantza gune eta komunitate gehienetan aldarrikapen etnikoek indarra mantentzea lortu zuten (Castel, 2005).

FRELIMOk bere ideologiarekin bat zetozen herrialdeen errespetua eta aintzatespena lortu zuen: Txina, Sobietar Batasuna, Tanzania eta Zambia, besteak beste. Hala ere, ezin izan zuen lortu helburu zuen barne-kohesio eta identitate bakar bat eraikitzea Aitzitik, aldarrikapen identitarioak existitzen jarraitu zuten. Disidentzia ideologiko eta diskurtsibo horien adibidea Mozambikeko Erresistentzia Nazionalaren (RENAMO) sorkuntza kontsideratu daiteke. FRELIMOk probintzia guztien batasuna eta homogeneousutasuna lortu nahi izan zuen bitartean, RENAMOk aldiz, erregionaltasunaren eta hegoaldeko probintzien gailentasuna defendatzen zuten diskurtsoak bereganatu zituen (ibidem) .

Nahiz eta gerra zibila kontsideratua izan, nazioartekotze maila handiko gerra izan zen. Beste modu batean esanda, Gerra Hotzeko testuinguru batean nazioarteko potentziek sostengatutako gerra izan zen. FRELIMOk bere erregimenaren alde zeuden Estatuon laguntza ekonomikoa jaso zuen, eta RENAMOk batez ere Hegoafrikako eta Hego Rodhesiako (gaur egungo Zimbabwe) zuriak zuzendutako erregimen eskuindarren laguntza jaso zuen, beltzen askapenerako eman litezkeen erreboltei beldurra baitzieten. Ondoren, Portugal, Estatu Batuak eta Mendebaldeko Alemania aliatu bihurtu ziren (Palacián de Inza, 2016).

FRELIMOn eta RENAMOn arteko eraso bortitzek zazpi milioi desplazamendu eta milioi bat hildako utzi zituzten (Gernika Gogoratu, 2023). Irabazteko aukerak oso urriak izanik bai batentzat zein bestearentzat, 1989an bake negoziazioei eman zitzaien hasiera. 1992ko urriaren 2an, Mozambikeko gobernuak (FRELIMO) eta Mozambikeko Erresistentzia Nazionalak (RENAMO) bake ituna sinatu zuten Erroman (Giesbert eta Schindler, 2011).

Gerra iraun bitartean, hilketa, barne eta kanpo lekualdatzeak, sare ekonomiko-sozialaren haustura zein azpiegituren eta geroago azalduko den bezala, ekosistemen suntsiketa eman ziren. Bake ituna sinatu eta bi urtera, alderdi-politiko berrien sorkuntzarekin batera, lehenengo hauteskunde demokratikoak eraman ziren aurrera (ibidem). Hauteskundeak herrialdearen iparraldearen eta hegoaldearen arteko bereizketa eta polaritatea agerian utzi zituen. FRELIMOk hegoaldean irabazi zuen bitartean, RENAMOK aldiz zentroan eta iparraldean. Salbuespena Cabo Delgado probintzia izan zen, zeina, nahiz eta iparraldean

kokatu, FRELIMOren alde jarri zen, FRELIMOk Chiúre barrutian (zeina Cabo Delgadon kokatzen den) eman baitzion hasiera independentziaren gerrari (Sefane eta Losada, 2005). Gaur egun banaketa sozial eta politiko hau dirau.

Nahiz eta bake ituna ostean emandako trantsizioa ereduzkoa kontsideratua izan den, estatuaren barne-tentsioak ez dira desagertu. Arrazoiak anitzak dira: pobrezia, ustelkeria, informazio falta, indarkeria, polaritatea, eta batez ere duela urte batzuk aurkitutako gas-erreserben erauzketa (Palacián de Inza, 2016).

Gaur egun, Mozambique munduko herrialde txiroenatariko bat da. Biztanleria gehiena gaztea da (biztanleriaren %65a 25 urte baino gutxiago ditu), %63a landa-eremuetan bizi da eta %62a pobrezia langa azpitik bizi da (Mora, 2023). Bertako emakumeei dagokienez, %30a euren bikotekideen biktima izan dira, munduko batez bestekoaren gainetik egonda (%27) (Munduko Bankua, 2022). Haur-ekontzei dagokienez, 20 eta 24 urteen arteko emakumeen erdia baino gehiago (%52,9 zehazki) 18 urte izan baino lehen ezkondu ziren. Elikadura-ziurgabetasunari dagokionez, Mozambiqueko herrialdearen ehuneko oso altua da, baina emakumeen kasuan ehuneko altuagoa da (%71,1 vs %67,4) (ONU Mujeres, 2024)

Puerto Ricorekin, Myanmarrekin, Haitirekin, Bahamasekin, Bangladeshekin eta Pakistanekin batera, Mozambique da krisi klimatikoaren eragin handiena jasan duen herrialdea eta kolapso ekologikoa jasateko arrisku handiena duena (Montull, 2022). 2023ko *Ecological Threat Report*-eko datuen arabera, Mozambique arrisku ekologikoak (zeinak hurrengo lau aldagai hauek barne hartzen dituen: elikadura-ziurgabetasuna, hondamendi-naturalak, presio-demografikoa eta ur-ekasua) jasateko probabilitate handiena duen herrialdeetako bat da.

1980ko hamarkadan, Mozambiqueko lurzoru osoaren ia %90a basoa zen. Tamalez, 2020an plazaratutako azkeneko datuen arabera, portzentaje hau %43ra murriztu da, bertan aurrera eramaten diren baso-mozketa dela medio. Deforestazioa areagotzen duten ekintza nagusiak egur-merkataritza zein lur emakidak dira. Honen harira, azkeneko bi hamarkadetan batez ere, Mozambiqueko gobernuak lur publikoen kontzesio ugari eskaini ditu. Bertako Konstituzioak eta 2018ko Lurren Legeak xedatzen duenaren arabera, lurraren jabetza Estatuari dagokio eta ez bertako biztanleriari. Hau dela medio, gobernuak eskumen osoa du lurraren gaineko edozein erabaki hartzera. Legedi honek basoen kudeaketa ez ezik, bertako komunitate

nekazariak historikoki landu izan dituzten *machamba* izena duten lurren kontzesioak burutu dituzte ere, bertako nekazarien desplazamendua eraginduz eta beraien egoera sozioekonomikoa kaltetuz (Gomes, 2020). Cabo Delgado probintziako biztanleria, aurrerago aipatzen den moduan, horren biktima izan da ere.

4.2.2 Cabo Delgadoko testuingurua: suntsituta dagoen probintzia.

Cabo Delgado probintzia, zeina Mozambikeko ipar-ekialdean kokatzen den, munduko gainontzeko probintziekin alderatuz, Giza Garapen Indize (GGI) baxuenetariko bat du (0,383) eta Mozambikera mugatuz gero, Cabo Delgadoko GGI-a herrialdeko baxuena da (Global DataLab, 2021). Bizi-itzaropena 48 urtekoa da eta 2021eko datuen arabera, probintziako analfabetismo- portzentaia %53koa da (Gernika Gogoratuz, 2023).

Indarkeria Cabo Delgadoko historiaren ezaugarri nagusietako bat izan da. Izan ere, lau gatazka ziklo nagusi nabarmendu daitezke: XIX. mendearen azkeneko urteetan, kolonizazio garaian zehazki, “baketze-kanpainak” izena jaso zuen gerra burutu zen lurraldean, helburu nagusia Portugalدار inperioaren okupazio-koloniala izanik. XX.mendean, 1963-1974ra bitartean zehazki, askapenerako gerrari eman zitzaion hasiera. Honako hau amaitu eta bi urtera, 16 urteko gerrak egin zuen eztanda. Azkeneko gatazka-zikloak, aurrerago aipatuko den moduan, 2017an hasi zen (Gernika Gogoratuz, 2023).

Biolentziaz beteriko honako historia hau ulertzeko orduan, dagoeneko aipatu diren gerra-zikloei beste hainbat aldagai gehitu behar zaizkie: mugikortasun eta aniztasun kulturala, erlijioso eta politikoa, islamaren tradizio ezberdinen arteko liskarrak, baliabide-naturalen gaineko jabetzaren inguruko aferak, aniztasun etnolinguistikoa, lurraldearen kokapen geostrategikoa, Asiako erdialdean hasitako narkotrafiko-bidea, legez-kanpoko baliabideen eta mineralen merkataritza... Arrazoi hauek direla medio, bortizkeria-estruktural gogor baten eta, Nixon-ek dioen bezala, indarkeria-motelaren biktima kontsideratu daiteke Cabo Delgado (ibidem).

Esan bezala, Cabo Delgado baliabide natural ugari dituen probintzia da, hala nola mineralak (errubiak batez ere) eta gas erreserbak (Gernika Gogoratuz, 2022). Mozambikeko erregio txiroenatariko bat da eta bertako populazioa historikoki baztertuta eta isolatua sentitu izan da,

gobernuaren inbertsio-ekonomiko nagusiak hegoaldean egin izan baitira. Horrek, bertako gazteen ezegonkortasuna areagotu du (Friends of the Earth eta Justiça Ambiental, 2022).

Bertako errealitatea ondo ulertzeko, ezinbestekoa da berezkoak dituen aniztasun politiko, etniko, erlijioso eta kulturalak aintzat hartzea. Biztanleriaren ehuneko handiena landa-eremuetan edo kostaldean bizi da eta hiru etnia ezberdinetan sailkatzen da: *makonde*-ak (erdialdean bizi diren kristauak), *makwak* (kuantitatiboki talde-etniko handiena) eta *mwaniak* (kostaldean bizi diren musulmanak) (Gernika Gogoratzuz, 2023). Azkeneko hauek gutxienekoak dira Cabo Delgado, eta historikoki harreman gatazkatsuak izan dituzte *makonde*-ekin, zeina historikoki botere gehiena izan duten.

Mozambikek biodibertsitate handiko ekosistema aberatsez beteriko 2.770 km-ko kostaldea du. Bertan dozenaka uharte daude, lurmuturrak, mangladiak, badiak, estuarioak...(Neves de Souto, 2015). Afrikako ekialdeko mangladien %60a, hain zuzen ere, herrialde honetan kokatzen da. Aberastasun natural honen zati handi bat Cabo Delgado probintzian kokatzen da, non oso anitzak diren koralezko-arrezifeetan itsas-animali ugari bizi diren; Quirimbas-eko parke naturalean gehien bat zehazki, zeinak 2018an UNESCOren eskuetatik Biosferaren Erreserbaren estatusa jaso zuen, Munduko Biosfera Erreserbaren Sarearen parte bilakaturik (Cunha, 2019).

Cabo Delgado probintziako biztanleriaren zati handi bat hain aberatsa den kostalde horretan bizi da. Bertako komunitateak, eko-humanismoa bezalako ikuspegiarekin bat eginez, lurraren eta itsasoaren arteko sinbiosi estu batean bizi dira, non elkarren artean osagarriak (eta beste batzuetan gatazkatsuak) diren jarduerak garatzen dituzten (Araujo eta Donato, 2014; apud. Neves de Souto, 2015). Artisau-arrantza, zeina kostalde osoan zehar zabalduta dagoen, jarduera oso garrantzitsua da, bai bertako komunitateentzat bai herrialdeko ekonomiarentzat. Cabo Delgado historikoki “itsas-ekonomia” izan duela esan daiteke, herrialdearen joerarekin bat eginez. Itsasoak pisu eta garrantzi handia izan du bertako komunitateen identifikazioan zein gizarte-kategorizazioan. Historikoki gizonen jarduera kontsideratu izanak Cabo Delgadoko familien eredu patriarkala indartu izan du (Mendes de Araújo eta Cruz e Silva, 2015). Hala ere, komunitate hauen biziraupenerako ezinbesteko jarduerak burutzen dituzte bertako emakumeek, hala nola, itsasoan dauden animaliak bildu eta tokian tokiko merkatuetan saldu (Neves de Souto, 2015). Itsasoak (eta honen baliabideak) arrantzaleen

tokiko kide izatearen sentimendua indartzen du, zeinaren bitartez solidaritate sareak eta lankidetzarako ekintzak ematen diren (Cruz e Silva, 2015).

2010 eta 2013 urteen artean, komunitate hauen bizimodua zeharo aldatu zen, kostaldean gas metaketa erraldoiak aurkitu baitziren, munduko bederatzigarren gas erreserba handiena bilakatu. Afrikar kontinente osoaren erreserba guztien erdia bertan kokatzeak dimentsio ezberdinen birkonfigurazioa eta eraldaketa handiak suposatu ditu (Llera, Rodrigues et al. 2023).

Cabo Delgadoko GNL industria, EB-rekin harreman zuzena duten hiru *offshore* (itsasoan kokatzen diren gas-erreserbak) proiektuak eta *onshore* (kostan bertan kokatua) kokatzen den urtze jarduerara bideratuta dagoen eraikin batek osatzen dute: Rovuma LNG (zeina Eni enpresa italiarraren eta ExxonMobil estatubatuarren zuzendaritzaren menpe dagoen), Mozambique LNG (Total Energies enpresa frantsesaren esku dagoena) eta Coral South floating LNG (FLNG), Eni-k zuzenduta (Rainforest Action Network, 2021) dira *offshore* dauden proiektuak. *Onshore* kokatzen den urtze ekintzaetara bideratuta dagoen eraikina Afungi penintsulako parkean eraiki dute eta bertako 600 familia tokialdatzera behartu dituzte, gehienak oraindik jaso ez duten konpentsazio ekonomiko baten truke (Earth of the Earth International eta JA!, 2023).

Proiektu hauek aurrera eramateko, ipar-globaleko eta Txinako finantza-erakunde publiko zein pribatuen eskutik 15.8 mila milioi dolarreko finantzaketa jaso zituzten enpresa hauek, hala nola Munduko Bankua (MB), Koreako Garapenerako Bankua, AEBko Garapenerako Finantza Korporazioa... (Banktrack, 2022).

Gaur egun, Coral South FLNG lanean dabilen egitura bakarra da. Izan ere, Mozambique LNG eraikuntza-fasean dago (gaur egun *stand-by* egoeran) eta Rovuma LNG aldiz, eraikuntza-aurreko fasean. Hala ere, lehenengo eskariak iristen ari dira Europako kostaldera. 2022ko azaroan, hain zuzen ere, Coral South-ek bidalitako lehenengo itsasontzia iritsi zen Europara; Espainiako eta Kroaziako kostetara zehazki (International Institute of Sustainable Development, 2023).

Ukrainako inbasioak, beste arrazoiekin batera, Europar Batasunaren GNL eskariaren hazkundera eragin zuen, eta horrek EBren eta Afrikako zenbait herrialdeen (hala nola Senegal,

Nigeria, Algeria eta Mozambique) arteko aldeko akordio ekonomikoak sustatu zituen. Adibidez, ENik, Errusia eta Ukrainaren arteko gerra medio, bigarren egitura flotagarri bat eraikitzeke interesa adierazi du Cabo Delgadoko kostaldean (IISD, 2023). “Gabezia” honekiko beldurrak esportaziora bideratutako proiektua izatea eragin du. Izan ere, ateratako GNL guztiaren apenas %12a Mozambiqueko beharrak hornitzeko erabiliko da, eta ehuneko horren zati handiena industria zein gas-sektorean aritzen diren negozioetara bideratuko da (Banktrack et al., 2022).

Nahiz eta GNL proiektuak berriak izan, Cabo Delgadoko historia osoan zehar baliabide naturalen erauzketa-jarduerak eraman dira aurrera, hala nola Portugaleko erreinuak baliabideen estrakzioan oinarritutako ekonomia politikoa ezarri zuenean bertan. Kolonialismo garaiko Portugaleko gobernuak baliabide teknologiko eskasak zituenez, erauzketa-jarduerak eskala txikian burutu zituen, eta horri esker, ekosistemen birsorkuntza posiblea izan zen. Alabaina, azkeneko bi hamarkadetan, globalizazio neoliberala eta teknologia berriak medio, ekonomia eredu antropozentrista hau Cabo Delgadoko biztanleriarentzat zein bertako naturarentzat jasanezina bihurtu da (Cunha, 2024).

Hasiera batean, gas proiektuaren ezarpena erakargarria izan zen bertako komunitateentzat, gobernuak zein enpresa transnazionalak zabaldu zuten diskurtsoa oparotasun ekonomikoan oinarritu baitzen. Haatik, gaur egunera arte, bertako komunitateek ez dituzte onurarik jaso, eta horrek gazteen ezinegona eta haserrea areagotu du (Halser, Bridley et al. 2023).

Gobernuaren laguntzaren bitartez, erauzketa jardueretan aritzen diren mendebaldeko enpresek gauzatutako presioaren ondorioz aurrera eraman diren komunitate-arrantzaleen erreasantamenduek, enpresen eta nekazari *makondeen* zein beste arrantzaleen arteko talkak sortu ditu, emakumeak kaltetun nagusiak izanik, zeinek lurak galtzeaz gain, prostituzio lanak egin behar izan dituzten (ibidem).

Abudo Gafuro aktibistak¹ erreasantamenduak eman eta gero komunitateen bizimodua aztertzen duen ikerketarik ez egin izana kritikatzeko du. Horrez gain, beste hainbat kalte aipatu zituen elkarrizketan: langabezia, azpiegitura publiko zein pribatuaren suntsiketa masiboa

¹ 5. eranskinean Gafuro jaunak idatzitako erantzun zehatzak aurkitu daitezke (portugesez). Lehenago esan den bezala, hizkuntza oztopo handia izanik, bion artean elkarrizketa modu idatzian gauzatzea adostu genuen; hau da, nik galderak bidaltzea eta berak modu idatzian erantzutea.

eta biztanleriaren gorputzetan barneratu den etorkizunarekiko ziurgabetasuna. Ondorio hauek, hain zuzen ere, Cabo Delgado, indarkeria eta esplotazio ekonomiko eta kulturalaren bitartez, mendebaldeko enpresa transnazionalen kolonialismo eredu berri baten aurrean dagoela azaltzen dute (Cunha, 2019).

Esan bezala, lotura zuzena antzeman daiteke mendebaldeko ekonomia jarduerak komunitate arrantzaleengan eragin dituzten ondorio kaltegarrien eta gatazkaren eztaandaren artean. Nahiz eta neurri ugari erabili hura ekiditeko, Total Energies enpresak kostaldeko jarduerak gelditzea erabaki zuen 2021eko apirilean, Palma hirian emandako eraso bortitza eta gero zehazki (Halsey, Bridle et al. 2023). Hori dela eta, esan bezala, gaur egun enpresa hauen proiektu gehienak *stand-by* egoera batean daude. Honek ez du eredu neokolonialistarekin amaitu, Mozambikek jasandako presioa eta menderakuntza ez baita eten eta dagoeneko zenbait kalte sumatu daitezkeelako. Gainera, azkeneko informazioen arabera, urte honen amaieran, barne tentsioak lausotuz gero, erauzketa jarduerak berriz martxan jartzeko asmoa aitortu du Total Energies-ek (Cabo Ligado, 2024).

Cabo Delgadoko gerraren eztanda beraz, ez egonkortasun maila handiko zein segurtasun energetikoaren izenean erauzketa enpresek burututako sarraldi marko batean ulertu behar da. Gatazkaren hasiera “ofiziala” 2017ko urriaren 5ean eman zen (Coral South LNGek bere proiektuari hasiera emateko azkeneko inbertsioa egiteko erabakia hartu eta bost hilabetera), data honetan lehenengo eraso bortitza eman baitzen Mocimboa do Praia barrutiko polizia-etxearen aurka, gas-proiektuen azpiegiturak kokatzen diren lekutik oso gertu (Llera, Rodrigues et al., 2023). Eraso honen bitartez, dagoeneko atxilotuta zeuden zenbait gazte askatzea lortu nahi zen. Lehenengo eraso hau eman zenetik, gatazkaren beste bost fase nabarmendu daitezke (Gernika Gogoratuz, 2023):

- 2017aren amaiera eta 2018ko hasiera: *Ansar al-Sunna*-k erakunde publikoen aurka zuzendutako lehenengo eraso sistematikoak burutu zituen. Hauen ondorioz, biztanleria ihes egiten hasi zen. Estatuak gatazkaren larritasun-maila onartu ez zuenez, laguntza-humanitarioa ez zen iritsi (ibidem).
- 2018: Estatuaren eta Gobernuaren aurkako erasoak indartu ziren, eta eraso gehienak gobernuan lan egiten zuten pertsona zehatzen eta pertsona hauen jabetzen aurka burutu ziren (ibidem).

- 2019: Bortizkeria eta segurtasun-indarrekiko mesfidantza areagotu ziren. Desplazamenduen hazkundera eman zen. Gobernuak oraindik ez zituen gerrarekin amaitzeko erabaki garrantzitsurik hartu.
- 2020: Mocimboa de Praia eta Palma hirietan matxinatuen eraso bortitzak eta okupazioa eman ziren. Horren ondorioz, milaka pertsonak ihes egitea erabaki zuten. Lehenengo harrera-zentroak antolatu ziren eta gatazkak nazioarte mailan oihartzuna lortu bitartean, lehenengo abegi-zentroak antolatu ziren eta Nazio Batuaren, Munduko Bankuaren, AEBren, EBren, Sueziaren eta Noruegaren finantziazioaren zein GKE-ezberdinen lanaren bitartez, nazioarteko laguntza humanitarioa iristen hasi zen. Horrez gain, Estatua Cabo Delgado militarizatzen hasi zen (Alberdi, 2022)
- 2021tik gaur egunera arte: Desplazamenduak areagotu dira. 2021ko Palmaren okupazioaren ondorioz, Total Energies-ek bere jarduerak etetea erabaki zuen. Atzerriko misioak ezarri ziren probintzian. Nahiz eta zenbait komunitateen itzulera eman 2021ean, 2022tik erasoak beste guneetara zabaltzen hasi dira: Meluco, Macomia, Nangade, Quirimbas... (Gernika Gogoratuz, 2023)

Gaur egungo gatazka *Ansar al-Sunna*-ren eta Mozambikeko Indar Armatuaren artean ematen ari da, eta horrek milaka hildako uzteaz gain, ia milioi bat desplazamendu suposatu ditu ere, errefuxiatu-krisi handi bati hasiera emanik eta, esan bezala, Total Energies erauzketa enpresaren aldi baterako jardueren etetea eraginduz (Llera, Rodrigues et al., 2023).

Al-Shaabab (Somaliako talde-terroristarekin inolako zerikusirik ez duena) edota *Ansar al-Sunna* muturreko matxino-taldea da. Honen ideologia, Islamaren ulerkera erradikal batean oinarritzen da. Talde hau osatzen duten kide gehienak, Mocimboa de Praian, Palman eta Nangaden bizi diren 20 eta 35 urte arteko gizon gazteak dira. Jende gaztea errekrutatzerako orduan, Islamaren muturreko ulerkera zabaltzeaz gain, barne-auziez eta tentsioez baliatzen dira, hala nola, erauzketa proiektuen ondorioz emandako desplazamenduek gazteen langabezia eta atsekabea areagotu izana (Makonye, 2020). Talde-islamiar honek harreman estuak ditu Afrikako beste herrialde batzuekin: Kenya, Somalia, Uganda, Tanzania edota Kongoko Errepublika Demokratikoa besteak beste (Human Rights Watch, 2024). 2019tik

Estatu Islamikoarekin (EI) harremana duela aitortu da, baina Estatuaren opakutasun maila dela medio, harreman honen inguruko informazioa oso eskasa da.

Matxinatuen- talde hura kontrolatzeko, hasiera batean gobernuak Wagner-talde paramilitarrari zein mertzenario hegoafrikarrei eskatu zioten laguntza. Gobernuak ez zuen lortu indarkeriari amaiera ematea, hori dela eta, esan bezala, nazioarteko laguntza militarraz baliatu zen (Gernika Gogoratzuz, 2023). Gaur egun oso nazioartekotuta dagoen gatazka izanik, *Ansar Al Sunna* eta Mozambiqueko Indar Armatuez gain, aktore ugari parte hartu dute edo parte hartzen ari dira hala nola armada pribatuak (Wagner, PSME-STEPP, Lancaster 6 Group) eta Ruandako Indar Armatuak (Frantziaren finantzaketaren bitartez). EB-k, Nazio Batuetako zenbait ekintza-humanitario finantzatzeaz gain, Estatu Batuekin batera 2021ean laguntza militarerrako eta entrenamendu militarerrako misioa (EUTM) jaulki zuen, demokraziaren eta Giza Eskubideen defentsaren izenean (Alberdi, 2022). Horrez gain, Afrika Australeko Garapenerako Komunitateak (SADC), Hego Afrikaren zuzendaritzapean, SAMIM izeneko misio militarri eman zion hasiera (Alberdi, 2022)

Arrazoi ezberdinak erabili izan dira talde-erlijiosoa zenaren erradikalizazioa eta militarizazioa azaltzeko orduan (Makonye, 2020). Hiru diskurtso edota teoria ezberdin nabarmendu daitezke zehazki. Lehenengo diskurtsoa ofiziala kontsideratzen dena litzateke eta lurraldearen militarizazioa bultzatzeko arrazoia kontsideratu izan da. Honek dio terrorismoaren eztanda *jiha*-aren eta Estatu Islamikoaren marko politiko eta militarren barnean ulertu behar dela, zeinaren helburua mendebaldeko balioen aurkako gerra bat garatzea den (Llera, Rodrigues et al., 2023). Beste bi diskurtsoak aldiz, haratago doaz, eta herrialdearen barneko dinamika eta gertakizunen gainean jartzen dute fokua. Bata komunitateen liderrak burutzen dutena litzateke. Hauen arabera, gatazkaren eztrandaren arrazoi nagusiak gobernuak erauzketa-enpresen alde Cabo Delgadoko biztanleriaren beharrak alde batera uztea eta bertako hiritarrak baliabide naturalen gaineko kudeaketa jardueretatik baztertzea lirateke (Gernika Gogoratzuz, 2023). Izan ere, historikoki Cabo Delgado herrialdeko garapen-prozesupetik at geratzeaz gain, gobernu zentralaren bazterketa jasan duen probintzia da ere (Makonye, 2020). Azkenik, akademiak zein gizarte zibilaren narratiba izango genuke, zeinak gatazkaren konplexutasuna agerian utziz, barne aldagaiak zein interes-geoestrategikoak aipatzen dituen, historian zehar eman diren pribatizaziak, etnien-arteko lehia, bazterketa eta desjabetzeak haratago, bertan aurrera eraman nahi den GNL erauzketa proiektuak eragindako kalteak gatazkaren arrazoi nagusia kontsideratuz

(Gernika Gogoratuz, 2023). Proiektu ekonomiko hauen ondorioz euren lurrak galdu dituzte eta horrek zuzeneko eragina izan du bertako komunitateen identitatean (Cunha, 2019).

Gertakizun hauek direla medio, gaur egun fisikoki zein moralki suntsituta dagoen probintzia da Cabo Delgado. 2019ko Kenneth eta Idai zikloiek zein 2017tik bertan ematen ari den gatazkak dagoeneko 6.000 pertsonen bizitzarekin amaitu dute (Alberdi eta Oianguren, 2024). 1.300.000 pertsona baino gehiago nazioarteko eta nazio barneko erakundeen laguntza humanitarioaren menpe daude eta ia milioi bat pertsonak (bertako biztanleria osoaren %40,79a) euren etxeetatik ihes egin behar izan dute (Gernika Gogoratuz, 2023)

Horrez gain, oraindik dirauen gatazkak Cabo Delgadoko komunitate arrantzaleen ongizatearen eta bizimoduaren amaiera eragin du. 2021.urtean Amnistía Internacionalek plazaratutako txosten baten arabera, gerraren ondorioz hainbat Giza-Eskubideen urraketez gain, gerra-krimenak eta Nazioarteko Lege Humanitarioen bortxaketak eman dira ere bai, bai *Ansar Al-Sunnaren* zein herrialdeko Indar-Armatuen aldetik: zibilen-hilketa, lepo-mozteak, laurdentzeak, etxe eta azpiegituren suntsiketa, desplazamenduak, hilketa-estrajudizialak, torturak, mutilazioak...

2000. urteko Emakumeei, Bakeari eta Segurtasunari buruzko 1325 Ebazpenak dioten moduan, sexuaren arabera, gatazka eta gerra modu ezberdinetan gorpuzten dira. Era berean, CEDAW-eko Batzordeko 35. gomendio orokorrak dioten bezala, badaude zenbait faktore soziokultural eta larrialdi egoera non emakumeen eskubideen urraketa larriagotzen den; hala nola desplazamendu-egoeretan, erauzketa-proiektuak aurrera eramaten ari direnean edota militarizazioaren eta terrorismoaren hazkundera ematen denean, besteak beste (CEDAW Komitea; apud. Palacios,2020). Cabo Delgadoko kasuan, larrialdi-egoera hauek aurkitu ditzakegu, zeinek eragin zuzena izan duten bertako emakumeengan. Kasu askotan estremismoa emakumeetan gorpuztu da, menderakuntzaren, bortxaketen, bahiketa edota desiratu ez diren harreman sexualen eta ezkontzen bitartez, besteak beste. Talde terroristako kideak ez ezik, gobernuko segurtasun-zerbitzuetako kideak zein soldaduak ere izan dira ekintza hauen egileak. Sistema patriarkal batean oinarritzen den testuinguru batean jasan beharreko indarkeria-matxista indartu eta larriagotu da gerra dela medio. Horrez gain, lekualdatutako gehienak emakumeak eta umeak izan dira eta horietako ugari bahitu dituzte (Hendricks, Lucey et al., 2023). Kanpamentuetan, emakumeek higieine intimoarako baliabideak lortzeko arazoak dituzte, konpresen eskasia baitago bertan (Gernika Gogoratuz,

2023). Gainera, tokialdaketa hauen ondorioz, historikoki euren ardurapean zeuden jarduera ekonomikoak burutzeko aukerarik ez dute, euren legitimitatea eta autoritate iturria galduz. Aldi berean, euren ezagutza tradizionalak isilarazi dituzte eta espazio publikoaren sarbidea indarrez kendu (Cunha, 2024).

Ekofeminismoak defendatzen duen moduan, emakumeengan ezartzen den bortizkeria eta zapalkuntza, naturak gizakien eskutik jasaten duenarekin alderatuta ulertu daiteke. Gizarte patriarkal kapitalistak eragin zuzena du bizitza mota eta eredu guztietan, natura barne. Analisi honetan bi ekintza hartuko dira kontuan: erauzketa-jarduerak eta gerra.

4.2.3. Gas Natural Likidotuaren (GNL) erauzketa Cabo Delgado: ingurumen-kalteak eta kalte-ekologikoak.

Enpresa trasnazionalen (eta Mozambikeko gobernuaren) ikuspegi antropozentristak kapital-bizitza gatazka marku larri baten barnean kokatu du Cabo Delgado. Probintzia bizitzaren-jasangarritasunaren eta metaketa-prozesu kapitalisten arteko gatazka konponezin baten aurrean dagoela ondoriozta daiteke. Enpresa hauen ekoizpen-eredua natura baliabide kontsideratzeaaz gain, indarkeria eta gatazka ezberdinak eragin ditu Cabo Delgadon, bertako bizitzaren jasangarritasuna (honako hau modu integral batean ulertuta) arriskuan jarriz.

Cabo Delgadon aurrera eraman nahi diren erauzketa proiektu hauek Gobernuaren laguntza jaso dute hasieratik. Hasiera batean, GNL proiektuei hasiera emateko, gobernu zentralak zenbait arau zein ingurumenaren eta lurraldeen inguruko legediaren aldakuntza eraman zuen aurrera, hala nola hurrengo lege hauek: 2010eko eta 2014ko Erreasantamenduen inguruko Legea zein ingurumen-babeserako araudiko zenbait lege (2011ko Ingurumen Ikuskaritza Legea eta 2015eko Ingurumen Inpaktuaren Ebaluaketarako Araudia zehazki). Horrez gain, 2014ko Erreasantamenduen Legearen aldaketaren bitartez, GNL proiektua herrialdearen lehentasuna izatera pasa zen, beste kontsiderazio legal batzuen aurretik. Moldaketa honen bitartez, gas-erauzketa ingurumen-babeserako araudiaren gainetik geratu da (Llera, Rodrigues et al. 2023) Honen harira, Abudo Gafuro aktibistak honako hau salatzen du: *“Enpresa transnacionalek udaletxeari etxebizitza berriak, sarbideak eta egin behar ez duena egitera behartzen diote (...) eta urratu egiten dira herrialde honek ingurumena babesteko duen*

legedia eta gure Konstituzioak kalte materialez arduratzeko betebeharrak soziala babesten duen printzipioa”

Ikerketa ugari adierazi duten moduan, GNLa ez da trantsizio ekologikoaren eta klima-aldaketari aurre egiteko estrategia klimatiko egokia, ekonomia ezin baita erregai-fosilen erabileraren menpe egon, komunitateei zein ekosistemei kalte egiten baitiete. Hainbat ikertzaileen aburuz, Pariseko Akordioaren helburua (hots, luraren tenperaturaren hazkundera 1,5 gradu zentigraduetara murriztea) ezingo da bete gas-hobi berriak (GNLrako hobiak barne) garatzen jarraituz gero (International Institute for Sustainable Development, 2023).

Historikoki gasa “erregai-zubi” bat kontsideratu izan da, petrolio edota ikatza bezalako erregaiak baino garbiagoa izateaz gain, berotegi-efektuko gasen isurketa maila txikiagoa eragiten duelako. Hala ere, GNL garbia ez izateaz gain, ez ditu emisio txikiak burutzen. Izan ere, industria hau aurrera eramateko beharrezkoak diren azpiegiturek; hala nola hodiak, likidotze-azpiegiturak, esportazio-terminalak edota tankeak, erregai fosilekiko menpekotasuna izaten jarraitzen dute, edozein motatako trantsizio ekologikorako bidea oztopatuz. Are gehiago, gas ekoizpenak airearen zein uraren kutsadura suposa dezake eta gas-hodiak eta putzuak bertako ekosistemen eta habitat-en narriadura. Ohikoa da gasa esportzeko beharrezkoak diren azpiegitura guztiak (likidotze-plantak, esportazio-terminalak...) baztertuak dauden komunitateen bizilekuetan eraikitzea, bertako biztanleriaren tentsioak eta zailtasunak areagotuz. Horrez gain, erauzketa eredu hauek, itsasoetako garratzasun-maila handitzeaz gain, oso kutsakorra den metanoa kantitate handien isurketa eragiten dute. (Swanson eta Levin, 2020).

Horrelako proiektu motei hasiera eman baino lehen, posibleak izan daitezkeen ondorio ekologikoez diharduten txostenak burutzen dira. Alabaina, ez dira errealistak, hauen egileak nazioarteko enpresentzako lan egiten duten aholkularitza-enpresak izaten baitira (Cunha, 2024). Anadarko gas-enpresa estatubatuarrak (zeinak 2019.urtean Occidental Petroleum-ek erosi zuen) 2014.urtean, Impacto izeneko enpresaren bitartez, Cabo Delgadoko kostaldean aurrera eramango zituen erauzketa proiektuak eragin zezakeen kalte ekologiko zein ingurumen kalteak aztertzen zituen txosten bat plazaratu zuen. Bertan, inpaktu ezberdinak mailakatu ziren: *inpaktu hutsala* (ingurumena eta gizarte-baldintzak ez dira kaltetuko) *inpaktu baxua* (kalteak emango dira baina inpaktua nahiko txikia izanik), *inpaktu ertaina*

(onartutako mugen eta estandarren barruan kokatzen den inpaktu mota) eta *inpaktu handia* (aldaketak handiak izango dira) (Anadarko, 2014).

Txostenaren arabera, eragin sozioanbientalak izan dezaketen jardueren artean daude dragatzea, dragatze-materiala kentzea, urpeko azpiegituren instalazioa eta erabilera anitzeko kaiak eraikitzea, besteak beste (Anadarko, 2014). Txostenak, hiru espazio bereizi zituen (itsas-zabala, kostaldeko ekosistemak eta lurzoruko ekosistemak) eta aurrera eramango ziren jardueren ondorioz bertan eman zitekeen kalteak aipatu zituen.

Itsas-zabalean aurrera eramango ziren ekintza gehienek (zulaketa-ebakinak deskargatzea, hondakin-lohien isurketa, habitataren eraldaketa edo trafikoa handitzea, besteak beste) eragindako inpaktuak hutsalak edo baxuak izango zirela aurreikusi zuen Anadarkok. Horrez gain, arintze-neurrien ezarpena eta gero, murriztu ahalko ziren zenbait inpaktu ertain gerta zitekeela adierazi zen: baleen kontrako itsasontzien talkak eragindako baleen asaldura edota itsaspeko azpiegituren eraikuntzaren ondorioz itsas-arrezifeak eta bertan bizi diren organismoak kaltetzea, besteak beste (ibidem). Tamalez, bertako egoera ikertu duten hainbat GKE-ek burututako salaketen arabera, ez dira arintze-ekintzarik burutu.

Txostenean agertutako informazioaren arabera, kosta ondoko jarduerak eragindako kalteak itsas-zabalekoak baino kaltegarriagoak izango ziren. Hala ere, kontuan hartu behar da enpresa honen txostenak itsas-zabalean kokatutako Coral South FLNG plataformaren jarduerak ez zituela kontuan hartu, eta horren ondorioz aurreikusitako inpaktuak ezin dira adierazgarriak kontsideratu. Maila ertaineko zenbait inpaktu aipatzeaz gain (ekoizpen eremuen galera edota espezie inbasoreen agerpena) inpaktu-altua izan zezaketen zenbait ekintza zerrendatu ziren ere, hala nola dragatzea, hondartzaren eraldaketa, soinuaren handitzea, hondakinen isurketa, azpiegituren eraikuntza...Aldi berean, ekintza hauek eragin zezaketen zenbait ondorio arinezinak adierazi ziren: koral, eta itsas-larreen gaineko efektu kaltegarriak, itsas-hondoaren eraldaketa, jalkin finek koralak eta bentosak estaltzea edota estuarioen zein bertako mangladien galera, besteak beste (ibidem).

Lurzoruko ekosistemetan aurreikusitako inpaktu nagusiei dagokionez, inpaktu handiena jasan zezaketen lurrak zingirak, hezeguneak eta basoak ziren. Maila altuko hainbat ondorio aurreikusi zituen enpresak: berotegi-efektuko gasen isurketa, Palmako badiaren paisaiaren transformazioa, hezegune eta estuarioetako ekosistemaren narriadura eta bertako animalien

bizitzaren aurkako ondorio kaltegarriak, hala nola arrainen gertzea, ndesaarrastien hilkortasuna, asaldura eta desplazamendua, edota ugaztunen mugikortasuna mugatzea, besteak beste (ibidem).

Les Amis de la Terre France izeneko GKE-aren aburuz, enpresa-transnazionalek aurkezten dituzten ekosistemen gaineko inpaktuen inguruan diharduten txostenetan (*green-washing*-era bideratuta egoteaz gain) agertzen diren datuak ez dira errealitatera egokitzen. GKE honek burututako estimazioen arabera, Total-Energies-en proiektua berriro funtzionamenduan jarriz gero, urtero 12,9 milioi tona CO₂ko isuriak eragingo ditu. Talde ekologista askorentzat datu hau ez da zuzena, ez baititu erauzketa bera ez diren hainbat jarduera kontuan hartzen, hala nola GNL-ko azpiegiturek erauzketa-, prozesamendu- eta garraio-jardueretan askatu ditzaketen metano kopurua.

Total-Energies-en proiektuak eragindako gas-isurketen estimazioei beste bi proiektuenak gehituz gero (hau da, Mozambique LNG-ri, Rovuma LNG-ren, eta Coral South FLNG-ren isurketa totalak gehituz) ondorioa argia da: Mozambiqueko hiru gas-proiektuek eragingo duten isurketa maila (batez ere metanoarenak) ez da Pariseko Akordioan ezarritako helburuekin bateragarria izango. Horrez gain, *Amis de la Terre*-k Quirimbas biosfera-erreserba arriskuan dagoela salatzeaz gain, nazioarteko enpresek desagertzeko-arriskuan dauden animaliak bizi diren ekosistema oso aberatsetan hainbat azpiegitura eraiki dituztela salatzen du, fauna horrek bizirauteko dituen aukerak mugatuta geratuz (Les Amis de la Terre France, 2019).

Erauzketa-enpresak argitaratzen dituzten inpaktu-txostenen gardentasun eza salatzen duten beste hainbat GKE daude. 2023.urtean Greenpeacek aurrera eramandako ikerketa batek “karbono-bonba” kontsideratutako herrialdeen zerrenda bat burutu zuen. Karbono-bonba kontzeptuak, espazio bateko erreserba guztiak erre eta ateraz gero, CO₂ isurien gigatona bat baino gehiago (hau da, 1.000 milioi tona) isurtzeko gaitasuna duten erauzketa-proiektuak barne hartzen ditu. Mozambiqueko GNL proiektua osatzen duten hiru erauzketa-proiektuek zerrenda horren parte dira, hots, “karbono-bonba” kontsideratzen dira. Datuen arabera, Cabo Delgado probintzian kokatzen den GNL erreserba osoa erretzeak eta ateratzeak 11.8 gigatonako CO₂ isuriak suposatuko zituela estimatu zen, hau da, Afrika osoko erauzketa proiektuen emisio altuenak, soilik Hego Afrikako gerregai-proiektuaren atzetik (Kuhne, Bartsch et al., 2022).

4.2.3.1. Aurreikuspenak bete dira? Cabo Delgado kostaldearen egoera behin proiektua hasita.

Aipatutako ondorio kaltegarri posible hauek azaleratu zituen Anadarko erauzketa enpresa transnazionalaren txostena 2014. urtean idatzia izan zen; hau da, erauzketa-jarduerak hasi baino urte batzuk lehenago. Aurreikuspen horietako dezente bete diren bitartean, arintze jarduerak aldiz ez, horrelako txostenak *green-washing* deritzon horretara bideratuta daudela dioten GKE-i arrazoia emanik. Arestian aipatu moduan, kalte mota ezberdinak daude: indibidualak, kolektiboak, ingurumen-kalteak zein ekologikoak. Cabo Delgadon, nahiz eta 2021etik proiektu ia gehienak geldituta egon, dagoeneko tipologia guztia gertatu dela antzeman daiteke.

Ingurumen-kalteek, esan bezala, baliabide naturalen gehiegizko erabilerak zein kutsadurak kolektibo edota komunitate jakin baten gainean eragin ditzaketen ondorioak biltzen dituzte. Hau da, kasu honetan komunitatearen eta naturaren arteko harremana da kaltetua suertatzen dena. Bestalde, kalte-ekologikoen naturak, subjektu bezala, jasandako ondorio kaltegarriari erreparatzen diete (Beristain, 2010).

Ingurumen kalteei dagokionez, gas-proiektuek komunitate lokalen bizimodua eta naturarekin duten harremana kaltetu dute guztiz. Likido kimikoen isurketek eragindako uraren zein lurzorua kutsadurak gaixotasunak eragin ditu eta horrek, Abudo Gafuro aktibistaren aburuz, Cabo Delgado osasun-publikoko arazo larri baten aurrean egotea eragin du. Emakumeak kaltetuenak dira, haiek baitira urarekin zerikusia duten jarduerak burutzen dituztenak hala nola laborantza edota ura komunitateetara eramatea. Ura kutsatuta egonda ezin dituzte jarduera hauek aurrera eraman, eta horrek zuzeneko inpaktua du euren legitimitatean eta autoritatean (Cunha, 2024).

Era berean, proiektu mota honek eragin ditzakeen itsas-faunaren murrizketaren edota desagertzearen ondorioz, arrantzaleak, zeina kostaldeko komunitateen ekoizpen-jarduera nagusia burutzen duten, arrantza egiteko zailtasun handiak izango dituztela sumatzen hasi da. Zenbait kasutan ere, lehenago aipatu den moduan, Afungi parkean aurrera eramandako azpiegituren eraikuntzak Cabo Delgadoko komunitate lokalen desplazamendua suposatu du, itsasoko sarbidea kenduz, zeinak itsasotik 50m-ra bizitzetik, 10km-ra egotera pasa diren. Horrek eragin zuzena izan du (eta oraindik ere okerrera jo dezake) gizon eta emakume hauen

bigarren belaunaldiko eskubide sozial, ekonomiko eta kulturaletan (Justica Ambiental (JA! Friends of the Earth Mozambique, 2019).

Kalte ekologikoei dagokionez, hormigoizko logistika-azpiegituren eraikuntzak ekosistemen hondamendia eragin du (Cunha, 2024). Afungi parkearen eraikuntzak eta bertan burututako jarduerak baso, hezegune eta itsasertze askoren suntsiketa suposatu dute; eta horrek, bioaniztasunaren galera zein faunaren eta floraren arteko orekaren haustura eragin du (Halsey, Bridle et al; 2023). Gafurok dioenez, Afungi penintsulan ez ezik, Pembako hirian ere narriadura ekologikoa ematen ari da. Izan ere, bertan gas-proiektuen kudeaketa logistikoetarako basearen eraikuntzak bertako mangladien suntsiketa eragin du, bertan bizi ziren animaliak desagertuaraziz.

Onshore gunez gain, itsasoan ere ekosistemaren suntsiketa ematen ari da (Halsey, Bridle et al., 2023). JA!-k 2020an plazaratutako txosten baten arabera, behaketa-sismikoen ondorioz, dagoeneko sakonegi kokatuta ez dauden itsas-larreetaz elikatzen diren zenbait animalia hil dira, hala nola arrainak, dordokak eta zenbait itsaski. Horrez gain, kutsaduraren, zulaketen, dragatzeen eta itsas-azpian entzun daitezkeen zaraten ondorioz, biodibertsitatearen desagertpenaz gain, animalien ihesa ematen ari da (Wensing, 2022; apud. Halsey, Bridle et al. 2023). Dinamika honekin jarraituz gero, ekosistemaren narriadura maila kezkagarriaz gain, aldaketa klimatikoa areagotuko duten berotegi efektuko gasen isurien hazkunde handia aurreikusten da (Halsey, Bridle et al , 2023).

Inpaktu hauek ez dira soilik akademiako adituek zein zientzialariek antzeman dituztenak. Friends of the Earth GKE-ak erauzketa-proiektuen harira 2016an aurrera eramandako ikerketa batek, Cabo Delgadoko komunitateetako hainbat emakumeen zein gizonen iritziak eta bizipenak jaso zituen. Ibo uharteko hotel baten jabearen arabera, kalte ekologikoak bai Ibo uhartean bai Pemba hirian dagoeneko nabarmenak zirela aitortu zuen. Neguan ohikoa da baleak Pemban gelditzea. Gas enpresak iritsi zenetik, baleak ez dira uhartetik ezta kostaldetik ere ikusten, eta horrek naturan ez ezik, turismoaren bitartez diru-sarrerak lortzen dituzten pertsonen bizitzan zuzeneko eragina izan du ere (De Angelis, 2016).

4.2.3.2. Etorkizunera begira: proiektu guztiak berriz funtzionamenduan jartzean eman daitezkeen ondorio ambientalak eta ekologikoak.

Nahiz eta proiektu gehienak gaur egun geldituta egotea naturarentzat ona izan daitekeen, Cabo Delgado kokatutako proiektuak dituzten GNL enpresa transnasionalek iragarri dute egoera honek ez duela asko iraungo, proiektuak laster hasiko baitira funtzionatzen berriz. Hori dela eta, hainbat GKE-k burutu dituzten ingurumen-egoeraren eta egoera-ekologikoaren inguruko etorkizunerako aurreikuspenak ez dira onak.

Ingurumen-kalteei dagokionez, Mozambikeko Justiça Ambiental izeneko GKE-ak aurrera eramandako *Say No to Gas in Mozambique!* (2022) izeneko proiektuan, bertako komunitateak dagoeneko bizitzen ari diren osasun-arazoetaz zein desplazamenduetaz gain, bertako komunitateek jasan ditzaketen beste hainbat ondorio aurreikusten dira: gas proiektuaren ondorioz eman daitezkeen espezie-inbaditzaileen agerpenak eta itsas-animalien desagertzeak arrantza jarduerak are gehiago zailtzea, besteak beste.

Kalte-ekologikoei dagokionez, Greenpeace-k (2023) salatzen duen moduan, Total Energies-ek Cabo Delgado duen proiektuaren hainbat azpiegitura Quirimbas uhartedietatik eta Quirimbaseko Parke Nazionaletik (zeinak, esan bezala, 2018. urtean biosfera-erreserbaren estatusa jaso zuen UNESCOren eskutik) oso gertu daude; 50km baino gutxiagora zehazki. Datu kezkarri hau aintzat hartzea ezinbestekoa da, behin proiektuak hasita erregai fosilek eragingo duten kutsadura bertako ekosistemetara iristeko probabilitatea oso altua baita, batez ere Cabo Delgado bezalako ezaugarri geologikoak dituen itsasoko eta kostaldeko gune batean.

Justiça Ambiental, Greenpeacek esandako horrekin guztiz ados dago. Honen aburuz, GNL proiektuek konponezinak izango diren kalteak eragingo ditu; itsasoan ez ezik, lurzoruan bertan ere. Horrez gain, Greenpeacen antzera Quirimbas artxipelagoan jartzen du fokua eta behin proiektu guztiak martxan egonda biosferan dauden ekosistemak zein fauna, hala nola baleak eta dordokak, arriskuan egon daitezkeela salatzen du. Gas-emisioei dagokionez, *onshore* zein *offshore* proiektuen jarduerak (dragatzea, garraioa, ekoizpena...) Mozambikeko berotegi efektuko gas-isuriak %8a handitzea eragin dezaketela aurreikusten du. Zenbait

ikerketek ehuneko hau handiagoa izan daitekeela aurreikusten dute, %14koa hain zuzen ere (Friends of the Earth Europe eta Justiça Ambiental, 2022)

Nahiz eta hiru proiektuen funtzionamendua gaur egun nahiko geldituta egon, okerrera jo dezaketen ondorio zein inpaktua ekologiko eta anbientalak dagoeneko nabariak dira. Izan ere, behin proiektuak funtzionamenduan jarrita, hainbat GKEk zein gizarte-mugimenduk plazaratutako aurreikuspenak bete daitezke. Abudo Gafuro aktibistak, hain zuzen ere, gas-proiektuekin jarraituz gero, desplazamenduak eta gatazka-sozialen ondorioz emandako Giza Eskubideen urraketaz gain, Cabo Delgadoko beste hainbat dimentsioak oso arriskutsuak diren inpaktuen biktima izango direla salatzen du, eta aipatutako GKE-en aurreikuspenekin bat eginik, posible diren ingurumen ondorio zein ondorio ekologikoak zerrendatzen ditu:

- Biodibertsitatearen suntsiketa: gas-proiektuen beraktibazioak munduan bakarrak diren ekosistemak desagerrarazteaz gain, faunak ezinbestekoak dituen habitaten galera eman daiteke, bertako animalien bizitza amaituz.
- Uraren eta airearen kutsadura: GNL-ren erauzketak zein prozesamenduak ura eta airea kutsatu duten substantzia-toxikoak sortu ditu. Proiektuekin jarraituz gero, kutsadura mailaren igoera nabarmena eman daiteke, komunitatearen osasuna ez ezik, itsas-animalien osasuna ere kaltetuz.
- Aldaketa Klimatikoak: GNL-ren erauzketa aldaketa klimatikoa eta lurraren berotzea eragiten duten berotegi efektuko gasen iturria da. Hare gehiago, gas-proiektuen ondorioz eman den deforestazioak zein ingurumenaren-narriadurak inpaktu hauek areagotu ditzake.

Modu laburrean esanda, Cabo Delgadon lurraldeak, harremanak, gorputzak eta bizimoduak suntsitzen ari dira neokoloniala den garapen ekonomiko eta sozial kapitalista baten izenean. Izan ere, ekologia politikoak eta kapital-bizitza gatazkak dioten bezala, mendebaldeko herrialdeek bultzatzen ari diren eredu estraktibista eta metatzailea bizitzaren jasangarritasunarekin bateraezina da. Erauzketa proiektuen izaera antropozentristak ez du bertako ingurumen-etikak aintzat hartu, natura baliabidea kontsideratzen baitu eta ez berezko balioa duen subjektua. Hori dela eta, ezinbestekoa da mendebaldeko herrialdeek

justizia-ekologikoaren ikuspegia aintzat hartzea, edo behintzat horrera igarotzeko lehenengo pausuak ematen hasia.

4.2.4. Gerra Cabo Delgado: ingurumen-kalteak eta kalte-ekologikoak

““Fauna basatia suntsitu eta hura gabe bizi direnak ez daude osorik”
(Masai tribuko buru espirituala)

Militarizazioa nabarmen ari da krisi klimatikoa zein ingurumenaren narriadura sustatzen, arestian esan bezala, berotegi-efektuko gasen igorle nagusia baita gerra (Madzimure, 2022). Gainera, gerren ondorioz ematen diren populazioaren tokialdaketek zuzeneko eragina dute ingurumenean eta ekosistemetan. Modu laburrean esanda, naturaren narriadurak eta gatazkak lotura handia dute.

Nazioarteko Lege Humanitarioak natura arma bezala erabiltzea debekatzen du eta horren ondorioz nahita burututako naturaren aurkako erasoak debekatuak daude guztiz (ICRC, 2019). 2018an aurrera eramandako ikerketa batek Afrikako gatazka-armatuen eta bertako eremu babestuetako faunaren murrizketaren arteko korrelazioa identifikatu zuen (Anthes, 2022). Honako fenomeno hau Mozambikeko historian gertatu izan da eta gaur egungo gatazka berdina eragiten ari dela antzeman daiteke.

4.2.4.1. Iraganetik ikasiz: Gorongosako Parkearen kasua.

Mozambiken, FRELIMO eta RENAMOn artean emandako 16 urteko gerra zibilean, fauna bereziki kaltetua geratu zen tropa armatuak denbora luzean zehar egon ziren eremuetan. Izan ere, herrialdearen erdialdean kokatzen den Gorongosa Parke Naturalean sarraski bat eraman zen aurrera. Gerrillek zein ezkutuko-ehiztariak bertako animalien %90a akatu zituzten. Esate baterako, gerra iraun bitartean, bufaloak 14.000 izatetik 100 izatera pasa ziren, hipopotamoak desagertu ziren guztiz (4800 izatetik zero izatera pasa ziren), elefanteak 3000tik 108ra... Azkeneko hauen haragia, hain zuzen ere, FRELIMOk zein RENAMOk soldaduen elikagai bilakatu zen eta hauen adarrak munizioa eta armak lortzeko moneta (ibidem). Aniztasun

izugarria zuen parke bat izatetik, soilik eltxoak eta bi gerrilla hauek lurperatutako minen ondorioz kutsatutako lurzorua biziraun zuten (Hatten, Coutto. et al, 2023) .

Gorongosa Parkeaz gain, hiri-inguruko eta korridoreetako natura-baliabideek presio handia jasan zuten, pertsonen lekualdatze masiboen ondorioz. Izan ere, desplazatutako komunitateen ehizaren, arrantzaren eta zuhaitzen mozketen areagotzeak, naturaren narriadura eta habitaten eraldaketa suposatu zuen (Anthes, 2022).

2000. urtean, Gorongosako biodibertsitatea berreskuratzeko proiektu bati eman zitzaion hasiera. Pringle doktorearen aburuz, zeina proiektu honen aholkulari nagusia izan zen, *“Gorongosako Parkea, gatazka odoltsu eta suntsitzaile baten ondoren, erresilientzia ekologikoaren munduko eredu adierazgarria da”* (Pringle, 2022; Anthes, 2022). Parkearen etengabeko zaharberritzea, hain zuzen ere, giza ongizatearen eta ongizate ekologikoaren adierazpena da.

4.2.4.2. Gaur egungo Cabo Delgadoko gerra zibila, militarizazioa eta ingurumen- eta ondorio ekologikoak.

Gaur egungo Cabo Delgadoko gerra zibila ulertzerako orduan, teoria ugari daude, baina anitzak dira pobreziaren, berdintasun ezaren, edota baliabideen madarikazioaren ondorio dela esaten dutenak. Baliabide naturalen kudeaketa gatazkarako pizgarria izan dela ondorioztatu daiteke, esan bezala komunitateak euren bizilekuetatik desplazatzera behartuak izan baitira eta gazteek lan esparruan sartzeko aukerarik ez baitute (Anthes, 2022).

2017an matxinatuen erasoak hasi zirenean, Mozambikeko gobernuak, enpresa transnazionalen zein nazioarteko botereek burututako presioa jasan eta gero, militarizazio estrategia bati eman zion hasiera, lehenetsuna gas-enpresen babesa izanik, eta ez komunitateen segurtasuna (Friends of the Earth International, 2020).

Gatazkak eztanda egin zuenetik, militarizazioaren gaineko inbertsioa goruntz jo du. 2020an, Mozambikeko Barne Produktu Gordinaren (BPG) %2a gastu militarretara bideratu zen, Sahara Azpiko Afrikako batez besteko ehunekoa gaindituz (%1). Armamentuaren inportazioei dagokionez (dolarretan zenbakituta), honako hauen hazkunde nabarmena eman

da. 2020an, inportazioak milioi bat dolarretakoa izatetik, 16 miloi dolarrekoa izatera pasa zen 2022an. Gatazka hasi zenetik, armen-inportazioetara bideratutako gastu handiena 2019an egin zen, 22 milioi dolarreko gastua burutuz. 2020.urtean, gobernuak burututako gastu militarra 309.999.693 dolarretakoa izan zen, balio altuena 1977tik (MB, 2024).

“Suntsipenaren Gorpila” teoriak dioten moduan, militarizazioak ingurumenean eta ekosistemetan kalte zehatz batzuk eragiten ditu. Tamalez, esan bezala, Indar-Armatuak ez daude derrigortuta euren jarduera ekonomikoek burutzen dituzten isurien inguruko datuak plazaratzera. Hauxe bera da Mozambikeko kasua. Hori dela eta, ez daude militarizazioaren eta krisi klimatikoaren arteko harremana ikertzen duen datu ofizialik. Haatik, militarizaziora bideratutako inbertsioen hazkundera datu esanguratsua kontsidera daiteke. Gainera, Indar Armatuak ez diren erakundeen txostenen bitartez hainbat datu lortu daitezke. Hauen arabera, gerrak eta militarizazioak zuzeneko eragina izan dute kostaldeko arrantzaleen zein *machambetan* aritzen diren nekazarien bizimoduan zein euren identitatearen parte diren ekosistemetan. Esan bezala, arrantza-artisautza Mozambikeko kostaldeko industriadik zaharrena da eta komunitate askoren biziraupenerako oinarria. Cabo Delgadoko arrantzaleek gutxienez euren denboraren %60a arrantza egiten igarotzen dute. Normalean, gizonek burututako jarduera ekonomikoa da, emakumeak nekazaritza jardueretan aritzen diren bitartean. Hala ere, lehenago aipatu den moduan emakumeak dira bai olagarroak bai marmokak biltzen dituztenak eta salerosgaiak prozesatzen eta elkartrukatzen dituztenak (Food And Agriculture Organization of the United Nations, 2022).

Honako hau kontuan hartuta, gerrak kalte anitzak suposatu dituela antzeman daiteke, ingurumen-kalteak zein kalte-ekologikoak barne. Alde batetik, ekoizpen jarduerak aurrera eramanez ahal izateko, komunitate arrantzaleek itsasorako sarbidea behar dute bai ala bai. Gerrak eragin dituen lekualdatzeen ondorioz, komunitate ugari itsasorako sarbiderik gabe geratu dira, itsasoaren eta gizartearen arteko harremana moztuz. Gafuro aktibistak azaldu bezala, nekazariak ere gerra baino lehen mandioka, arroza, babarrun berdeak edota basartoa landatzeko erabiltzen zituzten lurak galdu dituzte. Gabezia hauen ondorioz, Cabo Delgadoko biztanleria biziraupen egoera larri batean aurrean egoteaz gain, Tanzaniako merkatuarekiko menpekotasun osoa du. Honek, hain zuzen ere, produktuen prezioen inflazioa eragin du.

Gerrak lurralde-antolaketa eta antolaketa-demografikoa aldatu ditu (Gernika Gogoratzu, 2023). Horrek, biztanleriaren bizimodua eraldatzeaz gain, inpaktu zuzenak izan ditu naturan

ere, hala nola itsasoan. Hots, gerrak itsasoko biodibertsitatearen transformazioa suposatu du. Cabo Delgadoko arrantzaleen arabera, Kenneth zikloia zein gerraren hasiera eman zenetik, arrainen kopurua eta arrantzale bakoitzak arrantzatutako arrainen batez bestekoa nabari murriztu da. Komunitateek diotenez, honen arrazoi nagusia, arrantzaleen kopuruaren hazkunderaz gain, gerrak suposatutako desplazamenduak izan dira. Milioi bat pertsona iparraldetik hegoaldera lekualdatu izanak presio-demografikoa handitu eta bertako lurren eta itsas-baliabideen gain-ustiapena eragin duela ondorioztatu daiteke. Aldi berean, gerraren ondorioz arrantza egiteko espazioa murriztu izana eta komunitateen itsasontzi txikien zein kanoen suntsiketak eragindako arrantzaleen-metaketa kostaldean, bertako arrain dentsitatea eskasa izatea eragin du. Adibide bat jartzearen, Iboko uharteko inguruetako arrantzaleak 15.000 izatetik, 30.000 izatera pasa ziren (Food And Agriculture Organization of the United Nations, 2022).

Cabo Delgadoko beste guneetan aldiz, aurkako fenomeno eragin du gerrak. Hot-spot deritzon horietatik desplazatzeak (Cabo Delgadoko iparraldetik zehazki) gune horietako arrantza desagerrarazi zuen, bertako espazioak hustuta geratu baitziren. Bi urte eta gero, itzulitako hainbat pertsonen zein Quissinga eta Palmako komunitateen arabera, arrainen kopuruaren hazkundera eman da (ibidem). Gerrak eragindako desplazamenduek beraz, komunitateen bizimoduaren galera ez ezik, ingurune naturalean eta ekosistemetan inpaktu ekologiko nabarmena eragin dute ere.

Kalte-ekologiko zuzenei dagokionez, Cabo Delgado ekologikoki okerrerantz jo dezakeen egoera baten aurrean dagoela esan daiteke. Gerra iraun bitartean, zenbait talde armatu ez estatalek azpiegitura ugari suntsitu eta erre dituzte ke kantitate handiak sortuz eta horrek, komunitate arrantzaleen eta nekazarien osasunean eta ekoizpenean zuzenezko eragina izateaz gain, bertako animalien bizitza arriskuan jarri du, biodibertsitatearen galera ematearen arriskua handituz.

Gatazka hasi zenetik, hainbat eraso eman dira ekologikoki oso aberatsak diren guneetan, Iboko eta Quissangako mangladietan, besteak beste. Tamalez, 2021eko azaroan, talde terroristak Niassako Parke Naturalera lekualdatu zen. 16 urteko gerraren ondorioz Gorongossako Parke Naturalean gertatutako sarraskia presente izanik, bertako biztanleria bertako animalien hilketak errepikatzearen eta basoen erreketen beldur agertu zen. Izan ere, Niassako parkeak duela gutxi lortu du 2019ko zikloiatik berreskuratzea eta urte horietan

emandako elefanteen ezkutuko-ehizarekin amaitzea. Hori dela eta, bertako komunitateen arabera, *Ansar Al-Sunna*-ren hedatzea atzera pausu erraldoi bat suposa dezake (OWP, 2024).

Horrez gain, urte honetan Cabo Delgadoko ekosistementzat oso arriskutsuak izan daitezkeen gertakizun ugari eman dira. Martxoan, Quirimbaseko uharte babestuan talde-errebelde ezberdinen okupazioa eta sartu-irteerak eman ziren (Voz de Cabo Delgado, 2024). Gafurok elkarrizketan salatu moduan, okupazio hauek direla medio, uharte honetan betidanik bizi izan diren zenbait animalien desagertzea eman da. Horrez gain, zenbait iturrien arabera, apirilean, kostaldeko hainbat gunetan, hala nola Macomiako barrutian, helikoptero-militarren bitartez burututako aire-bonbardaketak gauzatu ziren (Voz de Cabo Delgado, 2024). 2020an “*Action on Armed Violence*”-k “*The Conflict and Environment Observatory*”-rekin burututako ikerketa batek salatzen duen moduan, horrelako aire-erasoek lazgarriak dira biodibertsitatearentzat eta ekosistementzat, lurzorua eta ibaiak kutsatzeaz gain, animalien eta faunaren desagertzea eragin dezaketelako. Are gehiago, gatazka-eremuetako uraren kutsaduraren eta ur-saneamendura bideratuta dauden azpiegituren suntsitzearen ondorioz kolera kasuak handitzen hasi dira (OWP, 2024).

Talde-terroristak erasotutako barrutietan naturaren eta basoen deforestazio maila altua eman dela dio Abudo Gafurok. Honen harira, maiatzean, AEBko ingurumen ikerketerako agentziak (*Environmental Investigation Agency* (ENI)) txosten bat plazaratu zuen. Ikerketaren aburuz, Cabo Delgadoko basoetan dauden pasio-loreen (“granadilla” gaztelaniaz) egurraren legez-kanpoko esportazioak ematen ari dira Txinara. Nahiz eta legez-kanpoko egur-esportazioak gauza berria ez izan, hainbat iturrien arabera, gerra hasi zenetik egur kopuru horren %30a talde-terroristaren eskuen menpe dauden basoetatik jaso da. Prozesua erraza da: egur-merkatariak dagoeneko *Ansar Al-Sunna*-k legez-kanpo moztu duen egurra erosten dute eta hura zuritzen dute Montepuez-en (Cabo Delgadoko barrutia). Marko legalatik at dagoen jarduera honen bitartez, *Ansar Al-Sunna*-k finantziazioa jasotzen ari du. Estimazioen arabera, bai legez-kanpoko zuhaitz horien mozketari esker bai egurraren salmentari esker, 2 miloi dolarreko irabaziak eskuratzen ditu hilero (ENI, 2024). Ekintza hauek, bertako talde terrorista finantzatzeaz gain, deforestazioaren eta probintziako basoen degradazio mailaren hazkunde nabarmena eragin dute, dagoeneko egoera klimatiko oso larria duen herrialde baten egoera okertuz (ibidem). Gainera, sendabelarren eta jangarriak diren landareen desagertzea ematen ari da, ekosistemetan ez ezik, emakumeengan zuzeneko

inpaktua eraginduz ere, hauek baitira landare hauen inguruko informazioaren jabeak eta adituak (Cunha, 2024).

ENI-k ez ezik, Mozambikeko gobernuak ere 2023ko abenduan argitaratutako 55/2023 Ebazpenak *Ansar Al Sunna*-k flora eta faunaren kontrabandoa burutzen ari dela salatu zuen, hala nola egurrarena, ikatzarena edota arrainena (art.2.2.1.c.47). 2.4.91.artikuluari, ekintza terroristen ondorioz zuzeneko kalteak jaso ditzaketen sektoreak adierazten dira. Horietako batek, hain zuzen ere, faunari, florari eta arrantza-baliabideei egiten die erreferentzia. Mozambikeko gobernuaren aburuz, talde-terroristak dagoeneko aipatu den egurraren kontrabandoa bezalako “ingurumen-delituetaz” gain, esportaziora zuzendutako ezkutuko ehiza eta legez-kanpoko arrantza burutzen dute, Cabo Delgadoko ekosistemen narriaduraren konplize zuzenak bilakatuz.

Laburbilduz, Cabo Delgadoko gerrak ere oso nabariak diren inpaktu kaltegarriak eragin ditu bertako ekosistemetan eta naturaren eta komunitateen arteko harremanetan. Eko-humanismoak dioen bezala, komunitateek naturaren beharra dute, beraien biziraupenerako ezinbestekoa izateaz gain, haien identitateen eta kosmobisioen oinarritzko parte baita (“*gizaki batek beste izaki-bizidunen beharra du gizakia izateko*”). Mendebaldeko herrialdeen ikuspegi antropozentristak, komunitateen identitatea kaltetzeaz gain, bizitza modu integralean ulertzen duten ikuspegien existentzia zein naturaren berezko balioa ukatzen du ere.

4.2.5. Enpresa estraktibisten eta indar armatuen arteko lotura.

“Merkatuaren esku utzi da biztanle-kategoria batek edo besteak biziraun behar duen ala ez erabakitzeko gaitasuna. Baina merkata, nor da?”

(Joseph Ki-Zerbo)

2011an Stefania Vitali ekonomilariak egindako ikerketa batek agerian utzi zuen soilik 737 agente ekonomikoek nazioarteko enpresa transnazional guztien %80a kontrolatzen zuela. Hau da, enpresa transnazonaletako akziodunen %0,61ak munduko enpresa handi guztien %80a kontrolatzen zuela. Ikerketa honek aldi berean, 50 agente ekonomiko garrantzitsuenen zerrenda plazaratu zuen. Zerrendaren lehenengo zortziak kontuan hartuta, sei finantzen arloan

aritzen diren agenteak dira, eta horietako hiruk (*BlackRock, State Street eta Vanguard* inbertsio-funtsek), armamentuaren ekoizpena bideratuta dauden enpresak kontrolatzeaz gain, enpresa fosilen gaineko influentzia handia dute. Enpresa fosil horietako bat Exxon-Mobil da (ibidem), Cabo Delgado probintziako gas erauzketan parte hartzen ari dena hain zuzen ere. Hau da, hiru inbertsio-funts hauek enpresa-militarretan zein enpresa-fosiletan inbertitzen dute, eta horrek, batak bestearen beharra duen bi enpresa mota hauek konektatzen dituen botere-sare baten existentzia agerian uzten du (Brunet, 2022).

Gastu militarra, eskuarki, gerra-negozioaren zikloaren lehenengo urratsa kontsideratu izan da. Erabaki politiko honen bitartez, herrialde batek bere baliabide ekonomikoak erabiltzen ditu bere armada indartzeko eta armen industria areagotzeko. Ondoren, industria hauek operazio militarrek burutzen dituzten armadeei armak saltzen dizkiete irabazi ekonomikoak lortze aldera. Zenbait ikertzaileen arabera, ziklo honen planteamendua gastu-militarraren fasea baino lehenago dauden bi pausu kontuan hartu beharko lituzke: herrialde baten behar militarra eta hura zehazten duen segurtasun doktrina. Gobernuak, presio-taldeek edota boterea duten aktoreek zehazten dituzten mehatxuak eta arriskuak dira segurtasunerako doktrina definitzen duten aldagaiak. Ipar globaleko herrialdeek, zeinek aldi berean munduko proiektio militar handiena duten, bi arrisku mota identifikatzen dituzte: terrorismoa alde batetik, eta segurtasun energetikoa bestetik. Hau da, euren baliabide militarrek erabiltzeko bi arrazoi nagusiak terrorismoa eta beraien eredu kapitalistak beharrezkoa duen baliabide energetikoak lortzea eta babestea (Calvo, 2021).

Brunetek defendatzen duen moduan, militarizazioa eredu ekonomiko jakin bat mantentzeko erreminta nagusia da (Brunet, 2021) Hau esanda, Mozambikena gasa aurkitu izanak armadaren erabilera justifikatzen du; hau da, iparralde globala osatzen duten herrialdeek honen erabilera ahalbidetzen dute iparraldeko sistema-kapitalistaren barnean kokatzen diren interes-ekonomikoen behar dituzten baliabide energetikoen babeste aldera (Calvo, 2021). Beste modu batera esanda, Cabo Delgado enpresa fosilen eta mundu militarren arteko sinergiaren adibide argia da.

2019ko otsailean, Anadarko zein ENI/ExxonMobil enpresek, Mozambikeko Defentsarako Ministerioarekin tropa gehiago zabaltzeko akordio bat sinatu zuten, enpresa hauen jardura ekonomikoak babesteko helburuarekin. Urte berdinean, irailean, Total Energies-ek Anadarkoren aktiboak erosi zituen, Mozambikeko GNL-ren eragile nagusia bilakatuz

(ibidem). Datu garrantzitsua: Total Energies enpresa frantsesa da. Horrek azaltzen du, hain zuzen ere, Macron presidenteak aurrera eramandako ekintza hauek: etorkizuneko gas-azpiegiturak babesteko mota askotako armak esportatu zituen eta Mozambikeko flota indartu zuen. 2013an, Frantziak ekipamendu militarra bideratutako 12.3 milioi euro bidali zituen Mozambikera. Gatazka hasita, 2018ko otsailean, Jean-Yves le Drian, Frantziako Kanpo Politikako Ministroa (*Foreign Affairs*), finantzaketaren eta segurtasunaren bitartez Frantziako industriaren interesak babesteko misio diplomatiko bat eraman zuen aurrera. Aldi berean, ExxonMobilek eta Total Energiesek 300 soldadu gehiago exijitu zizkioten gobernuari (ibidem). Gaur egun, Mozambikeko indar armatuek gerrarako bombardero eta helikoptero frantsesak erabiltzen ditu (Fortin, 2021). Total Energies bezalako enpresen botere eta gaitasun politiko eta diplomatikoa, hain zuzen ere, Frantziaren eredu neokolonialista bermatzeko bidea kontsideratu daiteke (Llavero-Pesquina, Navas et al. 2024).

Frantzia ez da izan bere interesak babestu nahi izan dituen aktore bakarra. 2017ko abenduan, gatazkak eztanda egin eta bi hilabetera, *Blackwater* segurtasun pribaturako agentziako zuzendariak, Erik Princek, Mozambikerako konpainia bat sortzeaz gain, ontzi militarrek erosi zituen gas-enpresen segurtasuna bermatze aldera (Friends of the Earth International, 2020).

2021ean Palmako eraso eman zenean, bertako komunitateek ez zuten inolako babesik jaso. Aitzitik, enpresa transnazionalak 800 soldaduez baliatu ziren Afungi parkearen segurtasuna ziurtatu ahal izateko (Halsey, Bridle et al, 2023). 2022an EBk 45 milioi euroko dirulaguntza transferitu zion gobernuari Mozambikeko armada finantzatzeko helburuarekin, eta horrez gain hegoaldeko Afrikako misio militarra zuzendutako 15 milioi euroko laguntza bidali zuen (Gurascio, 2022. apud, IISD, 2023). Inbertsio hauek justifikatzeko, EBk berdintasunaren, demokraziaren, Giza Eskubideen eta segurtasunaren defentsaren diskurtsoa erabili izan du; aitzitik, praktikan, Frantziako kanpo-politika eredua da EBko kanpo-estrategia zuzendu duena, EBren parte diren Estaturen interes-ekonomikoen eta interes-energetikoen babesa bilakatu baitira interbentzio honen arrazoi nagusiak (Alberdi, 2022)

Enpresa fosilek, euren jarduera eta erauzketa-politikak aurrera eraman ahal izateko enpresa militarren babesaren beharra dutela agerian uzten da. Hori dela eta, krisi-ekologikoaren errudunak, munduko gobernu pasiboez gain, erregai fosilen enpresak eta mendebaldeko Estatuak babesten dituzten segurtasun militarreko sistemak direla esan daiteke, lehenengoak

erantzule zuzenak izanik eta bigarrenak, narriadura klimatikoaren erantzule instrumentalak (Brunet, 2022).

5. ONDORIOAK

“Basoan, adarrak borrokan hasten direnean, sustraiak besarkatzen dira”

(Afrikako ahozko tradizioa)

